

**Edorta Arana
Josu Amezaga
Patxi Azpillaga**

Euskarazko hedabideak

erran ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Liburu hau Euskal Herriko Unibertsitateak (Erref. 1/UPV 00016.323-H-14803/2002 eta EHU06/41) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak (Ref. HM-2005-1-6) finantzatu dute zati batean. Aurreko bertsio bat 2006an atera zen *Mercator Media Monographs* 2-en, «The Basque Mass Media» izenburupean. Eskuragarri hemen:
<http://www.aber.ac.uk/mercator/images/BasqueLangMediaterfynol.pdf>
<<http://www.aber.ac.uk/mercator/images/BasqueLangMediaterfynol.pdf>>
Argitaratua UPV-EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntzaz.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-693-4906-9

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbo)

Aurkibidea

1. Ingurumari orokorra	5
1.1. Historia aurreko eta hizkuntzari buruzko testuingurua	5
1.2. Lurralde eta historia	5
1.3. Euskararen ezagutza eta erabilpena	7
1.3.1. Euskaraz jakitea	7
1.3.2. Euskara erabilpena	8
1.4. Lege egoera	9
1.5. Hizkuntza hezkuntza sisteman, Gobernuan eta lan esparruan	10
1.5.1. Hezkuntza sistema	10
1.5.2. Euskara Gobernuan	12
1.5.3. Euskara lan esparruan	12
1.6. Hizkuntza kulturaren esparruan	13
1.7. Euskararen aldeko herri mobilizazioa	14
2. Irratigintzaren eta telebistagintzaren panorama	14
2.1. Frantziar Estatuko eta Espainiar Estatuko irratitelebistagintzaren errepaso historikoa eta gaur eguneko egoera	14
2.1.1. Irratia	14
2.1.2. Telebista	16
2.2. Euskal Herriko irratigintzaren eta telebistagintzaren errepaso historikoa	17
2.2.1. Euskal Herriko irratigintzaren errepaso historikoa	17
2.2.2. Euskarazko irratigintzaren errepaso historikoa	18

2.2.3. Euskal Herriko telebistagintzaren errebaso historikoa	19
2.2.4. Euskarazko telebistagintzaren errebaso historikoa	20
2.3. Telebistagintza gaur egun	22
2.4. Irratigintza gaur egun	25
3. Prentsa idatzia	27
3.1. Euskarazko prentsaren historia	28
3.2. Euskarazko prentsa gaur	30
3.2.1. Egunkariak Euskal Herrian	30
3.2.2. Tokiko egunkariak	31
3.2.3. Astekariak eta prentsa espezializatua	32
3.2.4. Tokiko prentsa	32
3.2.5. Euskararen presentzia gaztelaniazko eta frantsesezko prentsan	32
4. Hedabide berriak	33
4.1. Euskara Interneten	34
4.1.1. Euskarazko edukiak	34
4.1.2. Internauta euskaldunak	34
4.1.3. Webguneak: tipologia, hizkuntza erabilerak, eragileak eta gunerik bisitatuenak	34
4.1.4. Euskararen corpusa sarean	35
4.1.5. Blogosfera eta komunitate birtualak (.eus)	35
4.2. Softwarea	35
5. Liburuaren industria	36
6. Zinemagintza	38
6.1. Hastapenak: laurogeiko hamarkada	38
6.2. Ekoizpena	38
6.3. Laurogeita hamarreko hamarkada	39
6.4. Gaur egun	40
7. Erreferentziak	41

1. INGURUMARI OROKORRA

1.1. Historia aurreko eta hizkuntzari buruzko testuingurua

Euskara egun Europan errotuta dagoen hizkuntzarik zaharrena da. Onartzen da, oro har, jadanik Neolitiko aroan, gutxienez Kristo Aurreko 2000 urte baino lehenago, orain dagoen lurraldean ezarrita zegoela. Oraintsuko azterlan batzuek, ordea, azken glaziazioko aroan kokatzen dute, Mendebaldeko Europako biztanleak kontinentearen hego-mendebaldean babestu zirenekoan. Inbasio indoeuroparren aurreko hizkuntza izateak ahaide ezagunik gabeko hizkuntzaren aurrean uzten gaitu. Horrela, azken mendeetan euskarari buruzko mitologia inguratu duen misterio-haloe nabarmenago egiten da.

1.2. Lurraldea eta historia

Euskarak, historian, euskaraz mintzo zen komunitatea izendatu du (*Euskal Herria*, «euskararen herria», alegia), baita herri horrek mendetan okupatu duen lurraldea ere. Gaur egun, lurralde hori zazpi probintzia dira, lau Espainiar Estatuko administrazioaren pean (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa Garaia), eta hiru Frantziar Estatuko administrazioaren pean (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa). Denek batera 20.947 kilometro koadro hartzen dituzte Mendebaldeko Pirinioen bi isurialdeetan eta Erdiko Goi-Lautada Iberiarraren iparraldean. Biztanleria, guztira, hiru milioira heldu da duela gutxi; horietatik % 90 penintsulako probintzietan bizi dira, Espainiar Estatuko administrazioaren mende, alegia.

Lurralde horren ezaugarri geografiko eta orografikoek ekarri dute eskualdea okupatuz joan diren zibilizazioen (batez ere, erromatarren, tribu ger-

maniarren eta musulmanen) hizkuntzak herrialdearen hegoaldeko lautadetan sartuz joan ziren bitartean, mendialdean eta kostaldean euskarak irautea. Bestalde, hainbat faktorek botere politiko edo kulturaletik, oro har, nolabait baztertuta izatera eroan dute hizkuntza. Faktore horien artean aipa daiteke, besteak beste, bertoko gizartearen ekonomia ahulak Gaztelako Gortearen erabat mende jarri zuela elite politikoa. Era berean, Nafarroako Erresuma XVI. mendean desagertzeak hizkuntza pizteko edozein aukera zapuztu zuen, herri hizkuntzak nazio hizkuntza bihurtzeko funtsezko une hartan. Izan ere euskara moldiztegira heldu zenean (1545) eta hizkuntza idatzia Biblia itzuliz kodetu zenean (1571), orduantxe galdu zuen Euskal Herriak bere-berea zuen azken egitura handia. Horren ondorioz, euskara, salbuespen gutxi batzuekin, herriak erabili duen baina klase agintarien kulturaren oso presentzia txikia izan duen hizkuntza izan da azken mendeotan.

Horri guztiari XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean euskal gizartea industrializatzearen hainbat ondorio gehitu behar zaizkio. Besteak beste, industrializazioak eraginda, ordura arte emigrazio iturri izandako herria (batez ere Ameriketara), etorkinen hartzailerak bihurtu zen. Horrela, Espainiar Estatuak hainbat eskualdetatik heldutako etorkinak edo etorkinon ondorengoak % 40 izatera iritsi ziren 1970eko hamarkadan. Samaldaka iritsitako etorkin erdaldunak euskara gutxituta zuen herri batera heltzen ziren. Gainera, herri horrek ez zuen etorkin haiek bertakotzeko aukera eman zezakeen egitura politiko eta kulturalik.

Faktore horiek eta beste batzuek hizkuntzak XIX. eta XX. mendeetan nabarmen atzera egitea ekarri zuten: 1866an % 52 euskal hiztunak baziren, ehun urte geroago euskal hiztunen kopurua % 22koa zen. Francoren diktadurak (1937-1978), urte askotan euskara erabiltzea debekatuz, eta Frantziar Estatuaren politika uniformatzaileak, egoera hura are larriagotu besterik ez zuten egin, euskara, XX. mendearen erdialdera, itzulerarik gabeko punturaino eroteraino ia.

Une kritiko hartan, euskararen etorkizunerako erabakigarriak izango ziren ekimenak sortu ziren hainbat herri sektoretatik. Babesgabezia, baita erakunde nagusien aurkakotasun irekia ere, gaindituz, euskal prentsa berria sortu zen (*Anaitasuna*, 1953; *Jakin*, 1956); zuhurki, euskara irratian sartzen hasi zen (1960); 1960tik aurrera, *ikastolak* —lehen eta bigarren hezkuntzako euskal eskolak— hasi ziren, eta 1978rako 53.000 neska-mutil joaten ziren ikastoletara; euskara literarioaren batasuna adostu zen (1968), euskalki-zatiketa idatzizko esparruan gainditzeko bitarteko gisa; helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko mugimendu handia sortu zen (40.000 ikasle 1976an); literatura-ekoizpena nabarmen gehitu zen; modernizatzeko hainbat ekimenek euskara baserri hizkuntza eta etorkizun gabeko hizkuntza gisa barik, irauteko eta gaurko gizarteari aurre egiteko hizkuntzatzat ekarri zuten.

80ko hamarkadaren hasieran, diktadura desagertu eta euskal lurraldeetako erakundeak sortzeak, oro har, bultzada berria eman zioten lehenagoko mugimenduari. Penintsulako probintzietan erakundeak eta legeen aldetik ere

nolabaiteko babesa etorri zitzaion euskarari, gehiago edo gutxiago lurraldeen arabera. Gaur arte luzatzen den etapa horretan, ordea, tentsioak izan dira oso dinamikoa den hizkuntzaren aldeko herri mugimenduaren eta kontrolarik kanpo geratzen zaizkien ekimenak baztertzeko joera handiegia duten erakunde erregionalen artean. Horrek ez bairik gabe hizkuntza berreskuratzen aurrerapen handia ekarriko zuten sinergiak sortzea oztopatu du. Berreskuratzea moteldu duen beste elementu bat sektore politiko jakin batzuen jarrera izan da, euskararen defentsa euskal abertzaletasun politikoa garatzeko bide gisa ikusi dutenez gero. Jarrera horrek, batetik, euskara berreskuratzearen garrantziaren inguruko gizaratearen adostasuna hausteko ahalegina ekarri du eta, bestetik, hizkuntza berreskuratzea moteltzera zuzenean bideratutako ekintzak, erakunde erregionaletatik (adibidez, Nafarroako Gobernu) eta Espainiar zein Frantziar estatuetatik.

1.3. Euskararen ezagutza eta erabilpena

1.3.1. *Euskaraz jakitea*

Gaur egun, hegoaldeko probintzietan egin den biztanleen azken zentsuaren arabera (EUSTAT 2001 eta INE 2001), eta Euskal Herri osoan egindako inkesta baten arabera (Euskararen Jarraipena 2001), euskal hiztunen portzentajea Euskal Herriko biztanleen % 27koa da, 779.778 pertsona, alegia. Beste % 20, hots, 552.871 pertsona, ulertzeko gai izango lirатеke, baina hitz egiteko ez. Azkenik, erdia baino gehiago, % 53 edo 1.497.091 pertsona, ez dira ulertzeko gai ere. Esan behar da, era berean, ia euskal hiztun guztiak elebidunak direla (euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa), euskal hiztun elebakarren kategoria desagertu denez gero (estatistika orokorretarako, ikus EDB 2006).

Proportzio horiek, ordea, ezberdinak dira lurralde, habitat eta adin multzoen arabera. Ikuspegi geografikotik, euskal hiztunen portzentajerik handienak lurraldearen erdialdeko eremuetan daude (bereziki, Gipuzkoan, % 48), historikoki beste hizkuntza batzuekin harreman txikiagoa izan dutelako; eta bestetik ipar-ekialdeko muturrean (Behe Nafarroa eta Zuberoa, % 61), baserri eremu, immigraziorik gabeko eta biztanle gutxiko lurraldean (Euskal Herri osoko % 1,5). Habitatari dagokionez, esan dezagun euskara baserri eremuan hirian baino hobeto gorde den arren, gaur egun euskal hiztunik gehienak hiri handietan biltzen direla. Adinari dagokionez, euskara irakaskuntzan sartzeak euskal hiztunak eta euskara ulertzeko gai direnak gehitu ditu, bereziki hizkuntza ofiziala den lurraldeetan. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba), 5etik 14 urtera arteko biztanleen % 66 euskal hiztunak dira. Horiei euskara ulertu bai baina hitz egiten ez duten haurrak gehitzen badizkiegu, haurren % 89 ulertzeko gai dela ateratzen zaigu.

Euskararen ezagutzaren oraintsuko bilakaerari buruzko datuek diotenez, oro har, euskal hiztunen kopuruak apur bat gora egin du azken hiru hamar-

kadetan. Gehitze hori hizkuntza gizartearen hainbat esparrutan sartzearekin batera etorri da. Horrela, azken urteetan eta Euskal Herri osorako, irabaziak galerak baino handiagoak izan dira hiztunen kopuruetan: 2001ean % 25, hamar urte lehenagoko % 22aren aldean. Hala ere, bilakaera ez da berdina izan lurralde guztietan: berreskuratzea nabarmenagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan eta motelagoa Nafarroan. Administrazio frantziarraren menpe dauden probintzietan halaber galera drastikoa izaten ari da: 1991ko % 33tik hamar urte geroagoko % 25era. Lurralde horietan, euskaraz eskolatutako neska-mutilak gehitu diren arren, litekeena da, lehenago erremediorik ipini ezean, bi belaunalditan soilik euskara galtzea.

Ez dugu diasporako multzoko hiztunen kopuruari buruzko datu fidagarririk. Herrialdeka, Amerikako Estatu Batuetako zentsuan etxean euskaraz hitz egin ohi duten ia 3.000 pertsona jasotzen dira. Oro har, Amerikako euskal diaspora historikoki garrantzitsua bada (4,5 miloi pertsona dira euskaldunen ondorengoak mundu osoan), hizkuntza bigarren edo hirugarren belaunaldian galtzeko joera izan da. Gaur egun, ordea, diasporan euskal nortasuna berpiztean euskara ikasten duten pertsonen kopurua gora egiten ari da, Argentinan bereziki.

1.3.2. *Euskara erabilpena*

Hiztunen kopuruaren bilakaera orokorrari buruzko datu nolabait baiko-rrak euskararen erabilpenari buruzko estatistikekin batera irakurri behar dira. 2001ean Euskal Herri osoan euskararen erabilerari buruz egin zen inkesta bateko datuen arabera (EDB 2006), kalean elkarrizketen % 13,5 izaten ziren euskaraz. Horrek esan nahi du euskaraz dakitenen erdiak erabiltzen duela euskara. Alabaina, datu hori ulertzeko kontuan hartu behar da euskaraz dakiten guztiek gaztelaniaz edo frantsesez ere badakitela. Horrela, talde batean euskal hiztuna ez den pertsona bakarra egoteak berehala talde osoa elebiduna ez den pertsona horren erdaran mintzatzen jartzen du. Bestalde, inkesta horrek datu baikor bat ere badakar: euskal hiztunek, oro har, solaskideak gai direnean euskaraz hitz egitera jotzen dute. Elebidun izanik gaztelaniaz edo frantsesez ere hitz egin lezaketela kontuan hartuta, euskal hiztunak euskarekiko fidelak direla ikusten dugu hor.

Erabileran eragina duen beste alderdi bat da euskaraz hitz egiteko gai diren pertsona askok euskara eskolan ikasi dutela eta ez familia edo harreman eremu gertuan. Horrek esan nahi du, batetik eta sarritan, familiako hizkuntza-aren aldean euskaraz gaitasun txikiagoa dutela eta, bestetik, euskal hiztun asko dagoela barreiatuta euskal hiztunak ez diren taldeetan. Lehenengo arazoa baiesten digu ulertu arren euskaraz hitz egiten ez dutenen portzentajea goraka doala jakiteak (% 8tik 11ra azken hamarkadan), eta euskal hiztun berriak euskara ohiko hizkuntza den praktika eta giroetan sartzeko beharrera bideratzen gaitu. Bigarren arazoa garbi geratzen da hirietan, hiztunen kopuru absolutua handiagoa izan arren, kaleko erabilera jaisten dela ikusten dugunean.

1.4. Lege egoera

Euskal Herria bi estatutan eta hainbat administrazio ataletan banatuta egoteak euskararen lege egoera homogeneoa izatetik urrun egotea dakar. Horrela, Pirinio Iparraldeko hiru probintziak (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa) gaur egun Frantziar Estatuan daude, Pirinio Atlantikoen Departamentuan sartuta Biarnorekin batera (Departamentuak autonomia politiko gutxiko unitate administratiboak dira). Aldi berean, hiru probintziak bi prefektura ordenen mende daude, lehenengo biak Baionakoaren eta hirugarrena Olorenekoaren mende (Biarnorekin batera). Penintsulako aldean, Espainiar Estatuan sartuta dauden lurralde historikoek bi unitate politiko osatzen dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoa (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba), eta Nafarroako Foru Erkidegoa, biak autonomia maila handiarekin. Banaketa administratibo eta politiko horrek desberdintasun handiak sortzen ditu hizkuntzaren estatus juridikoan, ikusiko dugunez.

Frantsesa ez beste hizkuntza guztiak printzipio iraultzaileentzako mehatxutzat hartzen dituen 1789ko tradizioari segituz, Frantziako Konstituzioak dio frantsesa dela Errepublikako hizkuntza (*La Constitution de la Cinquième République Française*, 2. art.). Gainerako hizkuntzak tolerantzia hutsean geratzen dira, arautzen dituen inolako legerik gabe, frantsesaren erabilera arautzen duten legeen aurrean (gero eta gehiago ingelesaren garrantziari aurre egiteko). Bestalde, Frantziak ez du Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna sinatu.

Zentralizazio politikoak eta euskal Departamentua ez izateak ere eragozten dute euskal lurraldeetan euskara beren beregi arautu eta promozionatzea.

Espainiar Estatuan, Konstituzioak gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du; hartara herritar guztiek gaztelania jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute. Horrekin batera, beste hizkuntzak euren autonomien esparruetan ofizialtzat jotzen ditu, hango estatutu legalek zer xedatzen duten arabera (Espainiako 1978ko Konstituzioa, art.) 3.1 eta 3.2). Hemen azpimarratu behar dugu lege horrek ezberdintasun handia ezartzen duela gaztelaniaren eta gainerako hizkuntzen artean: gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatzen du eta gainera jakin egin behar dela dio. Gainerako hizkuntzak erabiltzeko bermea ez du, beraz, Konstituzioak zehazten, eta hizkuntza horiek ikasi behar direnik ere ez du aipatzen. Espainiar Estatuak, bestalde, sinatua du Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna, baina aplikazioa zalantzan jarri zaio hainbatetan.

Hizkuntza gutxituen ofizialtasuna autonomia erkidego bakoitzeko berriazko legediaren mende dagoenez, penintsulako lurraldeetan lege egoera ezberdinak sortzen dira: batetik Euskal Autonomia Erkidegoan eta, bestetik, Nafarroako Foru Erkidegoan. Euskal Autonomia Erkidegoan, 1979ko Autonomia Estatutuko 6. artikulua euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batera ofiziala dela dio. Era berean, herritarrei bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko eskubide berbera aitortzen die. Herri administra-

zioek eskubide horiek bermatu behar dituztela ere aldarrikatzen du, betiere egoera soziolinguistiko bakoitzaren arabera. Bestalde, Euskara Normalizatzeko Oinarrizko Legeak (1982) eskubide horiek gehiago zehazten ditu hainbat esparrutan, besteak beste, hezkuntzan eta hedabideetan. Oinarrizko lege horrek atea ireki die euskara sustatzea helburu duten hainbat erregulazio eta erakunderi. Hala ere, euskararen aldeko erakundeetatik kritika ugari jaurtitzen dira oraingo legeak nahikoa ez direlako eta, gainera, betetzen ez direlako.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, erkidegoko estatutuak (1982) gaztelania lurraldeko hizkuntza ofiziala dela dio, eta euskal hiztunak dauden eremuetan euskara ere ofizial izango dela. Euskararen Foru Legeak, 1986an, artikulua hori garatuko du, eta lurraldea hiru eremutan bereiziko du: euskalduna, mistoa eta erdalduna. Lehenengoan, herritarrei administrazioak hizkuntza batean zein bestean kasu egin diezaaien eskubidea aitortzen die, baita bi hizkuntzetan hezteko eskubidea ere. Eredu mistoan administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen da, ez, ordea, administrazioak bi hizkuntzetako edozeinetan erantzunda izatekoa. Hezkuntzari dagokionez, eskariaren arabera uzten da. Eredu erdaldunean euskara toleratzen da, gutxi gorabehera. 2003an, Herri Administrazioetako 29/03 Foru Dekretuak are gehiago murriztu zuen euskararen erabilera publikoa eremu mistoan eta erdaldunean eta, adibidez, administrazioarengana gaztelaniaz zuzendu beharra xedatu zuen, baita administrazioak gaztelania erabiliko duela ere.

Lurralde bakarrean, Nafarroan, 600.000 biztanlerekin, hiru hizkuntza-estatus izateak zalantzak eta aurkakoak pizten ditu eta, gainera, beste egoera batzuk ere sortzen ditu. Maltzurrenetako bat da, probintziako hiriburua eremu mistoan dagoenez, egoitza han duen administrazio zentral guztia ere mendeaz hartzen duela eremu horretako erregulazioak.

Laburbilduz, esan dezakegu Euskal Herriko biztanleen % 73 euskara eta gaztelania ofizialak diren eremuetan bizi dela (inon ez dira euskara eta frantsesa biak batera ofizialak); % 16 euskarari inolako ofizialtasunik aitortzen ez zaion eremuetan, eta % 10 misto deritzen eremuetan. Euskal hiztunak eta euskara ulertzen dutenak hartzen baditugu, euskara gaztelaniarekin ofizial den eremuetan euskaldunen % 89 eta % 87 bizi dira, hurrenez hurren. Azkenik, euskal hiztunen % 8k ez du bere hizkuntzaren inolako aitortpen ofizialik.

1.5. Hizkuntza hezkuntza sisteman, Gobernuan eta lan esparruan

1.5.1. Hezkuntza sistema

Oro har, Euskal Herriko lurraldeetako hezkuntza sisteman euskararen lau egoera bereizten dira. D ereduan, euskara da hezkuntzan erabiltzen den hizkuntza, eta gaztelania edo frantsesa curriculumeko ikasgai bat gehiago (ingelese edo atzerriko beste edozein hizkuntza bezala). B eredu mistoa da, ikas-

gai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz edo frantsesez ematen dira. A ereduan gaztelania edo frantsesa erabiltzen dira hezkuntzan, eta euskara curriculumeko ikasgai bat besterik ez da. Azkenik, X ereduan ez dago euskararik ezertarako.

Euskal Herri osoa hartzen badugu, 2006/2007 ikasturtean unibertsitatekoak ez diren ikasleen % 43 D ereduan ari zen, hots, ikastegiko ohiko hizkuntza euskara zuen. % 18 B eredu mistoan ari zen eta % 20 euskara ikasgai hutsa den A ereduan. Azkenik, % 20k ez zuen euskara ezertarako ikasten eskolan. Euskarak lurraldeen arabera hainbat lege egoera dituenek, euskara ezertarako ikusten ez dutenak ia den-denak Frantziar Estatuko administrazioaren eta Nafarroaren mendeko lurraldeetan leudeke, eredurik hedatuena izanik (EDB 2006).

60ko hamarkadan euskal eskolak edo *ikastolak* sortu zirenetik, eredu horrek etengabe egin du gora, gaurko portzentajeetara heltzeraino. Horrela, hizkuntza ereduaren eta adinen arabera banaketari aditzen badiogu, ikusten dugu Lehen Hezkuntzako ikasleen, hots, 11 urtera arteko haurren % 47 D eredura joaten direla (Euskal Autonomia Erkidegoan % 62ra igotzen da portzentaje hori), euskara hutsean 15 eta 18 urte bitarteko ikasleen % 24k soilik ikasten duten bitartean. Esan behar da, era berean, haurren hasierako urteetako matrikulazioaren joeraren arabera, euskarazko ereduak eta eredu mistoak goraka doazela lurralde guztietan, administrazio frantziarraren menpekoetan ere, eta kasu honetan hazkundera, hain nabarmena ez den arren, esanguratsua da.

Unibertsitateko irakaskuntzari dagokionez, euskara apurka sartuz joan da. Gaur egun, oro har, unibertsitateko ikasleen % 27k eskolak euskaraz hartzen ditu. Ez dago euskara hutsean aritzen den unibertsitate erakunderik, eta unibertsitate bakoitzaren barruan, baita unibertsitate batzuen eta besteen artean ere, gorabehera handiak daude. Zaila da, orokorrean, titulazio oso bat euskaraz ikastea. Baina egia da kasu batzuetan euskararen erabileraren kuotak oso altuak direla, eta beste batzuetan, ordea, ez dela erabiltzen. Esan behar dugu administrazioak, irakaskuntzan euskararen alde egin duen bakoitzean, mailarik beherenak lehenetsi dituela, eta unibertsitatea ez hainbeste. Adibidez, gaur egun (2008-2009 ikasturtean), ikasleen % 55ek euskaraz egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatara sartzeko azterketa, euskaraz ikastea % 35ek soilik lortzen duen bitartean.

Bestalde, euskara hezkuntza sisteman sartzeak ere euskarazko hezkuntzarako liburuen ekoizpena eta argitalpena nabarmen gehitzea ekarri du, baina euskara zientzietako bibliografian orain hasi da apur bat azaltzen.

Azkenik, esan dezagun euskara gaztelaniarekin batera ofiziala den eremuan ere, legeak ikasleek derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzen denean bi hizkuntzetan maila txukuna lortu behar dutela dioen arren, hainbat azterlanek erakusten dute gaurko diglosia egoeran euskara-gaitasuna, kasu askotan, oso mugatua dela. Eztabaida sortu da horren inguruan, gero eta handiagoa, hezkuntzako hizkuntza politika berrikusi behar dela eta, baita euskara biga-

rren hizkuntza duten gero eta gazte gehiago euskarara ekartzeko bideak dira eta ere.

1.5.2. *Euskara Gobernuan*

Euskararen egoera gobernuko organoetan hizkuntzak administrazio bakoitzean duen estatus juridikoarekin lotuta dago, jakina. Arau orokor gisa, esan dezagun euskara gaztelaniarekin batera ofiziala den lurraldeetan, tokiko administrazioan erabiltzea araututa dagoela; aitortuta dago bereziki administrazioarekin harremanak hizkuntza batean zein bestean izateko eskubidea. Horrek, batetik, lege eta administrazioko xedapenak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea, eta administrazioari euskaraz zein gaztelaniaz zuzendutako idatziak onartzea, eta bestetik, langileak bi hizkuntzetan trebatzea dakar. Azken horri dagokionez, hainbat normalkuntza plan abiarazi dira, langile bakoitzari hizkuntza eskakizun zehatza ezarri, herritarrekin duten harremanaren eta lan egiten duen eremu soziolinguistikoaren arabera. Era berean, euskara administrazio publikoko lanpostuak balioestean meritua izatera igaro da ezinbesteko baldintza ez den kasuetan.

Espainiar Estatuak zuzenean kudeatzen duen administrazioaren kasuan, arauak askoz ere bigunagoak dira.

Aipatutako plan eta arau horiek zenbateraino bete diren inguruan polemikak sortzen dira etengabe. Oro har, esan dezakegu euskara administrazioan nabarmen sartu den arren, oraindik ibilbide luzea geratzen zaigula euskal hiztunak hizkuntza tarteko baztertuta egon ez daitezen lortu arte, eta are gehiago euskara administrazioko ohiko hizkuntza bihurtu arte. Bereziki aipagarriak dira osasun publikoaren esparrua (hor neska-mutil elebakar euskaldun ugari mediku elebakar gaztelaniadunek artatzen dituzte), edo justizia administrazioarena eta poliziararena, horietan euskara apur bat agertzen hasi besterik ez baita.

Amaitzeko, beti erdal hiztunek udalarekin harremanak gaztelaniaz izateko duten eskubidea errespetatuz, euskara administrazioaren ohiko hizkuntza bihurtzea erabaki duten udalen mugimendu txiki baina esanguratsua nabarmenduko dugu. Mugimenduak (UEMA) hainbat oztopo aurkitu ditu Espainiako administrazioarekin.

1.5.3. *Euskara lan esparruan*

Industrializazioak Euskal Herrian (xx. mendearen lehenengo erdian) nabarmen atzera eragin zion euskarari lan esparruan. Arrazoiak, batetik, gaztelania-hiztunen lurraldeetatik etorkin asko etortzea eta, bestetik, baserri eremuetatik hiri eremuetara joandakoen mugimendua izan ziren. Ordutik aurrera, euskararen presentzia produkzio sektoreetan oso txikia izan da, eta hala da gaur egun ere. Euskal hiztunen portzentajea oso altua den tokietan ere, lan harremanak nagusiki gaztelaniaz edo frantsesez izaten dira.

Arauaren salbuespenak lehen aipatutako administrazio publikoan, hezkuntza sisteman edo euskarazko kultura eta komunikazio industriaren mundu txikian ditugu. Horrela, hedabideetan aurkitzen ditugun lan eskaintzetatik % 12an soilik eskatzen da euskara mailaren bat izatea.

Gaur egun ziurrenik gutxien garatutako esparru horretan euskararen erabilera normalizatzeko hainbat egitasmo daude. Plan horiek gizarte ekimenetatik zein arlo pribatu edo gobernuaren ekimenetatik datoz, eta enpresa batzuetan jada garatzen hasita daude.

1.6. Hizkuntza kulturaren esparruan

Beste hizkuntza gutxitu askok bezala, euskal hiztunek kultura adierazpenetara jo dute babes bila beste eremu batzuk ukatu zaizkienean. Esan genezake, horrela, kultura esparruan dagoela osasuntsuen euskara. Hartara, euskal literaturak hazkunde handia eta berritzeko mugimendua eduki zituen Franco-ren diktaduraren garaietan ere. Ondorioz, besteak beste, literaturako hizkuntza batu egin zen 1968an. Ahozko tradizio oparoko eta idatzizko presentzia urriko herrialdean, hizkuntza batua, *euskara batua* sortu eta azkar zabaltzeak tentsioak piztu izan ditu, baina ez dira erregistro kultu eta idatzia eta erregistro tokikoagoak eta ahozkoak orekatuta egoteko oztopo izan.

Literaturari berari dagokionez, azken hamarkadetan garapen kualitatibo eta kuantitatibo handia izan da, genero eta estilo ugarietan: hirutik bi narratioak dira; poesiak eta antzerkiak, berriz, ez dute, hurrenez hurren, % 15 eta % 5 gainditzen. Itzulpenei dagokienez, hizkuntza gutxituetan ohi bezala, itzulitako obrek euskaraz ateratzen direnen portzentaje garrantzitsua hartzen dute, ia hirutik bat; hizkuntza nagusietara itzultzen direnak baino askoz ere gehiago, alegia (esaterako, Erresuma Batuan argitaratzen direnen % 2,4 dira itzulpenak). Bestalde, euskarak, gaur egun, herrialdearen mugetatik harantz hedatzen eta beste hizkuntza batzuetara itzultzen hasi diren erreferentziazko idazleak ditu: gaztelania da xede-hizkuntza nagusia (ia 600 liburu gaztelaniara itzuli dira), beste hizkuntza batzuen aldean (frantsesera, 30 inguru, alemanera eta ingelesera 10 bat, eta abar) (Basqueliterature 2006)

Euskararentzat oparoen den beste kultura eremu bat musikarena da. Horrela, esan dezakegu hizkuntza honek toki handia bete zuela 60 eta 70eko hamarkadetako musika popean, kultura eta politika mugimendu zabalagoaren baitan. Laurogeiko hamarkadan haustura izan zen eta euskal rocka sortu zen. Hasiera batean Euskal Herrian rocka batez ere gaztelaniaz egin bazen ere, euskara nagusitzeraz heldu zen, talde ezagun gehien-gehienek euskaraz kantatzeraino. Joera horrek gaur arte iraun du, eta euskal taldeek oso harrera ona dute Euskal Herrian bertan eta Euskal Herritik kanpo ere.

Gaur eguneko masa-kultura ahozko tradizioarekin lotzen duelako aipatzea merezi duen beste kultura fenomeno bat *bertsolaritza* da; ahozko inprobisazio kantatua. Bertsolari edo inprobisatzaileak antzinako tradizioa dira

euskal kulturaren, ahozko kulturari lotuta, jakina. Azken hamarkadetan berpiztu ondoren, hezkuntza sisteman sartzea lortu du, baita ikus-entzunezko hedabideetan eta ikuskizunen industrian ere. Adibidez, aipatuko dugu Bertsolari Txapelketaren azken finalean zuzenean 13.000 ikus-entzule baino gehiago izan zirela, eta telebistatik 120.000 pertsonen segitu zutela.

1.7. Euskararen aldeko herri mobilizazioa

Lehenago azaldu dugunez, euskararen aldeko herri mugimendua oso dinamikoa da. Horrela, *Kontseilua* bezalako erakundeak aurkituko ditugu, hainbat ekimen antolatu eta dinamizatuz, euskararako plan integrala garatzen duena. Helduak Alfabetatu eta Euskalduntzeko Koordinakundea (AEK) ere aipatu behar dugu, euskara irakatsi eta, gainera, *Korrika* bezalako gizarte mobilizazioak garatzen dituen (Korrika euskararen aldeko herri jairik handiena da). Hezkuntza sisteman ere, herri ekimenek toki nabaria betetzen dute, euskarazko irakaskuntzaren alde urtero antolatzen diren jaiekin.

2. IRRATIGINTZAREN ETA TELEBISTAGINTZAREN PANORAMA

Zerbitzu publiko gisa, estatuaren monopolioaren mende, eta gerra arteko garaian sortu eta garatu izanak asko baldintzatu zuten irrati-telebistagintzaren bilakaera. Testuinguru politiko, ekonomiko, teknologiko eta sozial desberdinean aritu izan arren, antzerako bilakaera izan du Espainiar Estatuan eta Frantziar Estatuan eta, ondorioz, baita Euskal Herrian ere. Gaur egun ere, irratia eta telebistaren digitalizazioa antzeko eredu jarraituz burutzen ari da, betiere aldaketa teknologikoaren, hedabideen jabetzaren eta kudeaketa modu berrien zein pertzepzio sozial eta kontsumo portaera anitzen testuinguru orokorrean.

Hala ere, Euskal Herriko irrati-telebistak, eta bereziki euskarazkoak, garapen marko oso desberdina dauka, esparru politiko eta administratibo batean ala bestean egotearen ondorioz. Horrela, esaterako, bi hedabideek ezarpen maila eta pisu espezifiko oso ezberdinak dauzkate Frantzia-Espainia mugaren alde bakoitzean, eta Espainiar Estatuaren baitan, Euskal Autonomia Erkidegoan ala Nafarroako Foru Erkidegoan egoteak baldintzatuta.

2.1. Frantziar Estatuko eta Espainiar Estatuko irrati-telebistagintzaren errepaso historikoa eta gaur eguneko egoera

2.1.1. Irratia

Espainiar Estatuan eta Frantziar Estatuan, bultzada pribatuak eta gerrek markatuko dituzte neurri handian irratigintzaren sorrera eta hasierako gara-

pena. Joan den mendeko bigarren hamarkadan, lehen irrati emandegi komertzialak aineratu ziren (*Radio Ibérica* 1912an eta, jada egonkor, *Radio Barcelona* 1924an, eta Frantzian, 1922an, *Radiola*, geroago *Radio Paris* izango zena), eta handik urte gutxira irrati publikoak sortu ziren, betiere, militarki, politikoki eta komunikatiboki tresna huts bihurtuta munduko zein Espainiako gerrek iraun zuten bitartean, eta baita ostean ere.

Erregimen frankistak Espainian hertsia-hertsian kontrolatu zuen hedabide hasiberria, eta emisore komertzialei funtzionatzen utzi zien arren, Estatu osorako emandegi publikoen sarea sortu eta erabat kontrolpean izan zuen.

Aldi berean, Frantziako gerraosteak agerian utzi zuen irrati-hedapeneko sistema estatal eta publikoaren beharra, gatazka militarrek markatutako herriari batasuna emango ziena, kanpotik emititzen zuten irrati komertzialek pisu handia hartua baitzuten. Berrogeiko hamarkadan, irrati sistema publiko frantziarra izango zena sortzeko bidean lehen urratsak ematen hasi ziren.

Bi estatuetakoa irratigintzaren garapen ereduetan bultzada publikoa eta pribatua zeukaten emisoreak batera etorri ziren eta, Frantziaren kasuan, bertatik zein periferiako herrialdeetatik emitituz gainera.

Irratigintzak eragin sozial handieneko urteak izan zituen haiek eta ordukoa da, gainera, emisoreak katean biltzeko joera orokortu izana.

Laurogeiko hamarkadan aldaketa nabarmenak izan ziren irratigintzaren panoraman, batez ere bi arrazoi zirela medio: hedabidearen liberalizazioa eta emisoreen kopuruak gora egiteko aukera zekarten aurrerapen teknologikoak (emisio eremu orokorrekoak eta tokian tokikoak, orotarikoak eta tematikoak, publikoak eta komertzialak). Seinalearen kalitateak hobera egin zuen frekuentzia modulatuaren eraginez.

Gaur egun, eta *Conseil Supérieur de l'Audiovisuel*-en agindupean, irratigintza frantziarraren sistema oparoak hiru eredu ditu: publikoa, elkarteetako eta pribatua. Izaera publikoa duen irratigintzak hiru multzo handi ditu, *Radio France*, *RFO* eta *Radio France Internationale*, bakoitza irrati kate eta emisore askorekin lurralde osoan zehar (azpimarragarriak dira *France Inter*, *France Blue* eta *France Info*). Irratigintza publiko frantziarra batez ere telebistaren kanonarekin eta baimentzen zaizkion publizitate bidezko diru sarrerara apurrekin finantzatzen da.

Gainera, azpimarratu beharra dago zenbaterainokoa den Frantzian elkarreetako emisoreen garrantzia. Izan ere, 600 bat badira finantziario bakoitza eduki arren, nagusiki diru-laguntza publikoekin irauten duten irratia.

Azkenik, lehenago aipatu dugun modura, emandegi komertzialen pisua dela-eta irratigintza frantziarrak izaera pribatua oso markatua du. Emisore horiek kate gutxitan biltzera jo dute azkar eta bizi; aipagarrienak *Europe 1*, *RTL* eta *NRJ* talde multimediak dira.

Espainiar Estatuaren kasuan, hedabideak arautzeko CSArek modukorik ez dagoenez, emisore komertzialak talde multimedia apur batzuen eskutik biltzeko joera are eta handiagoa izan da. Audientzia lortzeko borroka eta

irradi formatu gutxi batzuk *de facto* nagusitu izanak irradi panorama pobretzea eta tokiko eta elkarteetako emisoreak ia desagertzea ekarri izan dute. Estatu mailako irratiagintza publikoa *RTVE* (*Radio-Televisión Española*) delakoaren baitan berregituratu zen eta hor kokatzen dira edukiz eta formatuz desberdinak diren *RNE 1, 2, 3, 4* eta *5*. Aldi berean, 80ko hamarkadan, autonomietako irratia sortu ziren tokiko agintaritzen babesean euren edukiak eta, kasu batzuetan, gaztelaniaz bestelako hizkuntzetan emitituz, alegia, katalanez, galegoz eta euskaraz.

Bien bitartean, irratiagintza komertzialak, talde multimedia handien eskuetan bilduta (*PRISA*, *Onda Cero* eta *COPE*, nagusiki) zalantza gabeko pisu ekonomikoa eta audientzia du, eta publizitatearen bidez soilik finantzatzen da.

Irrati publikoen eta pribatuen sare handi horien emisioak bateratu egin dituzte Estatu osorako eta, izatekotan, deskonexio erregional laburrak egiten dituzte informaziorako eta, bereziki, publiziterako tartetxoak zabalduz.

2.1.2. *Telebista*

Frantzia lehen telebista emisioak 1935ean egin ziren arren, gerrak 1949ra arte atzeratu zuen *RTF* (*Radiodifusión-Télévision Française*) delakoaren sorrera. 1958an, ordea, abiada hartu zuen telebistak, betiere erreferentzia modura hartuta estatuaren zerbitzu publiko monopolikoa eta zentralizatua izatearena. Hirurogeiko hamarkadatik jada, eta bigarren kanala sortua zelarik, finantziario eredu mistoaren hautua egin zen eta publizitate mugatua onartu zen emisioetan. 1973an hirugarren kanala sortu zen, *France Régions 3*; izen hori daukan arren ez da inoiz emisore deszentralizatua izan eta beste biek lehen aritu izan da.

Francoren diktadurak izugarri baldintzatu zuen Espainiar telebistagintzaren bilakaera. Telebista hain berandu sortzea ere (1956) diktadurak pairatu zuen isolamendu politikoaren eta teknologikoaren ondorioa izan zen. Espainiako telebista publikoa (*TVE*) bere sorreran, estatuarena, zentralizatua eta monopolikoa zen, kontrol politiko zorrotzaren pekoa. Bigarren kanalak 1965ean ekin zion emititzeari, luzaroan emisio eremua oso murrizta eta seinalearen kalitatea eskasa izan bazituen ere.

70eko hamarkadan, *TVE*k ordezkartza erregionalak kokatu zituen Espainiar Estatuko hainbat tokitan, tokian tokirako albistegi laburrak eskainiz eta emisio zentralizaturako korrespontsal gisa aritu zitezten.

Telebistagintzaren ibilbidean, aldaketa handia 80ko hamarkadan etorri zen, geroago *CSA* izango zenaren aurreko erakundea sortu zenean Frantzia, eta ateak ireki zitzaizkienean telebista komertzialei (Frantziako lehen kanal publikoa, *TF1* delakoa, pribatizatua izan zen). Era berean, Espainiar Estatuan, deszentralizazio politiko-administratiboak autonomietako kanalak sortzea ekarri zuen. Gaur egun dauden dozenan, euskarazko *ETB1* izan zen bere emisioak aireratzen lehena.

Telebista komertzialaren *boom*ak emisoreen kopurua asko gehitzea eta hedabidearen beraren birdefinitzea eragin zituen; ikuskizunerantz, audientziaren ehizarantz eta epe laburreko mozkinetarantz bideratuta erabat. Urte haietan telebistaren kontsumoa nabarmen hazi zen eta gaur gaurkoz ere egunean 200 minututik gora iritsi da.

Garai horretan sortu ziren gaur egun emititzen ari diren eta legez erregulartzeko fasean dauden tokiko telebista asko..

Beste alde batetik, garapen teknologikoak hedabide honen bilakaera baldintzatu du hein handi batean. Uhin hertziarren bidezko transmisio sistema tradizionalaz gain, laurogeita hamarreko hamarkadan, satellite eta kable bidezko telebistak sortu eta ezarri ziren. Horrek guztiak telebistaren eskaintza biderkatzea eragin zuen eta telebistaren beraren *status quo* eraldatzea, digitalizazioa ate joka zetorren garaietan, zeinetan telebistaren ekoizpen, transmisio eta kontsumo moduetan berebiziko aldaketak eragingo zituen.

Bi estatuetan, barrutik zein kanpotik datozen emisioak ugaltzeak, ohikoez bestelako transmisio eta errezeptzio sistemak erabiltzeak, eskaintza ugartitzeak eta ikus-entzuleen ohiturak aldatzeak berrikuntza handiak ekarri dituzte. Alabaina, oraindik ere nagusi dira estatu mailako orotariko kanalak eta gaztelaniaz (*Tele 5, TVE1, Antena 3...*) edo frantsesez (*TF1, France 2, France 3, M6...*) emititzen dutenak.

2.2. Euskal Herriko irratigintzaren eta telebistagintzaren errepaso historikoa

2.2.1. Euskal Herriko irratigintzaren errepaso historikoa

Espainiar Estatuko eta Frantziar Estatuko gainerako lurraldeetan irratiak izan duen garapenaren haritik, Euskal Herrian joan den mendeko hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan sortu ziren lehenengo irradi emisoreak (*Radio San Sebastián*, 1924; *Radio Club de Vizcaya* eta *Radio Vizcaya*, 1925, *Radio Navarra*, 1934 eta *Radio Vitoria*, 1934). Ekimen pribatutik garatzeak, gerren eraginak, kate handitan biltzeak eta emisoreen gaineko kontrol politiko agerikoak zehaztu zuten neurri handian Espainiako eta Frantziako mugen albo bateko zein besteko irratigintzaren izaera.

Erregimen frankistak 1936ko kolpea eta ondorengo gerra babestu ez zituzten emisore guztiak itxi zituen, eta bakar batek, *Radio Euzkadik*, lortu zuen klandestinitatetik lanean jarraitu ahal izatea, 1946tik aurrera Euskal Herri kontinentaletik eta geroago (1965) Venezuelatik emitituz, 1977an desagertu zen arte.

Beste ingurumen politiko batean, baina Estatuaren ikuspegi zentralistatik hark ere, *Radio Francek* emisore bat ireki zuen Baionan, Euskal Herri kontinentaleko hiri nagusienean, noizbehinkako emisioez 1963tik, eta programazio egonkorrekin 1967tik aurrera.

Irrati panorama etsigarri horretan, alternatiba ia bakarra parrokia katolikoen gerizpean sortutako emisoreena izan zen, hala nola, *Radio Segura* (1956), *Radio Arrate* (1959), *Radio Loiola* (1961) edo *Radio San Sebastián* (1962). Emandegi horietan ere euskarak zeukan lekua hutsaren hurrengoa zen.

Espainiako diktaduratik honako trantsizio politikoak, Espainiar zein Frantziar Estatuetakoko deszentralizazio zantzu batzuek, FM irratiaren sorrerak, eta gizarte mugimenduek sortutako emisore alegalek berrikuntza interesgarriak ekarri zituzten. Irrati librearen aldeko mugimenduaren bizitasunak lau-robeiko hamarkada osoan eta laurogeita hamarrekoaren hasieran eta 1982an euskal irratigintza publikoaren jaiotzak (gaur egun bost emisore dira, bi euskara hutsean), panorama berria marraztu zuten. Hala ere, zalantzarik ez dago emisio-eremu estatala zeukaten emisorek nagusitasunari eutsi ziotela, gaztelaniaz edo frantsesez emitituz eta programazio zentralizatu eta homogeneoa eskainiz.

2.2.2. Euskarazko irratigintzaren errepaso historikoa

Lehenago esan dugun bezala, Espainiar Errepublikaren porrot militarrek eta ondorengo diktadura urteek, batetik, eta frantziar ikuspegi jakobinoak bestetik, izugarri baldintzatu zuten euskal irratigintzaren garapena eta etorkizuna, neurri handi batean Espainiako eta Frantziako emisoretatik igorritako seinaleen hartzailerik huts izatera kondenatuz eta, beraz, euren edukietan euskarari inongo lekurik utzi barik.

Erbestetik eta nagusiki gaztelaniaz aireratzen ziren *Radio Euzkadiren* emisioak eta Buffalotik (Wyoming, AEB) ia berrogei urtez Amerikako *Far Westera* emigratutako artzaintzat lanean aritu zen euskarazko *Basque Program* (1956) emisorearenak izan ziren euskaratik erabat aldenduta zegoen irradi ereduaren salbuespen bakarrak.

Lehen aipatu bezala, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan sortu ziren parrokien emisorak euskara erabiltzen hasi ziren apurka eta apalki, batez ere programa erlijiosoetan edo baserritarrei zuzendutakoetan.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan hainbat aldaketa aipagarri izan ziren. Maila politikoan eta sozialean, bertoko hedabideak sortzearen aldarrikapena zabaldu zen, batez ere euskarazko medioak eskatzeko. Giro horretan aireratu ziren *Radio Popular de Bilbao* (gerora *Bizkaia Irratia* bihurtuko zena) irratia euskarazko saioak, edo *Radio Popular de San Sebastián* eta *Loiola* irratia abiatutako «24 orduak euskaraz» kanpaina, bertoko hizkuntzan ari-tuko ziren irratia legitimatzeko eta euskarazko hedabideen sistemaren beharra finkatzeko.

Kontinenteko probintzietan, laurogeiko hamarkadako lehen urteetan, tokian tokiko eta euskara hutsezko irratia sortu ziren, hala nola *Gure Irratia* (1981), *Irulegiko Irratia* (1982) eta *Xiberoko Botza* (1982), eta urte haietan bertan *France Blue Pays Basque* martxan jarri zen, ia dena frantsesez emititzen bazuen ere.

Garai horietan, kualitatiboki oso garrantzitsua zen beste pausu bat eman zuen Eusko Jaurlaritzak *Euskadi Irratia* sortuz, alegia euskaraz eta orotariko programazioa eskainiko zuen lehen emisore publikoari abiapuntua jarriz. 1990ean, gainera, *Gaztea* (hasieran *Euskadi Gaztea* bataiatua) delako musika emisoreak aineratzeari ekin zion, bigarren hau bereziki gazteei zuzendua.

Euskal telebista sortu zuen lege beraren gerizpean (1982) euskarazko irrati publikoa ere hasi zen funtzionatzen, nagusi zen gaztelaniazko eskaintza desorekatua konpentsatzeko asmorik eta aukerarik gabe baina, sikan, elebakarra zen irrati panorama homogeneo eta desorekatuan nolabaiteko alternatiba gisa arituz. *Gaztea* irrati-formulako emisorea da bestalde biztanleria-ren segmentu zehatzetara zuzendutako euskarazko eskaintzak lor zezakeen arrakastaren adibiderik garbiena.

Hamarkada berean, mugaren bi aldeetan, baina batez ere hegoaldean, emisore libre edo elkarteetakok ugalduz doaz, emisio esparru murriztagoe-kin eta kasu askotan programazioan euskarari tarte handia emanez. Gainera, lehen ere esan dugunez, eliza katolikoaren garai bateko hainbat emisorek edukiak berregituratu dituzte eta euskara hutsez ari dira.

Hedabide publiko zein pribatuetan eman zen euskararen aldeko mugimendu hori nabariagoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan eta dezente motelagoa kontinenteko probintzietan eta Nafarroako Foru Erkidegoan.

Azken honetan, irratia-panorama orokorra aztertzerakoan agerian geratu den bezala, ez dago inongo ekimen publikorik irrati emisoreak sortzeko. Espainia mailan eta katean aritzen diren emisoreen esku lagatzen da dena eta hauek albistegietarako eta tokiko programaziorako gutxieneko azpiegitura baino ez dute antolatuko eta ia beti euskarari lekuri utzi gabe. Erakunde autonomikoek ez dute ezer egiten hizkuntza desoreka hori konpentsatzeko eta, aitzitik, erabaki erabat arbitrarioak hartzen dituzte euskaraz lan egiten duten, *Euskal Herria Irratia* bezalako emisoreen kontra. Harrigarria bada ere, Iruñerrian 1988tik euskara hutsezko emisioekin lanean ari den emisore honek ez du oraindik ere emititzeko baimen ofizialik eskuratu.

2.2.3. *Euskal Herriko telebistagintzaren errebaso historikoa*

Euskal Telebista (ETB) 1982ko Gabon Zaharrean hasi zen hasi zen arte, Euskal Herria Parisetik edo Madriletik heltzen ziren emisioen hartzaile hutsa zen. *France 3 Regione* Baionan 1970etik zuen programazio urria, edo *TVE* Bilbotik (1971) zein Iruñetik (1981) ematen zituen eguneroko albistegi labur-rrak tokiko deskonexio xumeak baino ez ziren.

ETB aineratu zenean euskara eta euskal kultura sustatuko zituela eta komunikaziorako bertoko tresna izango zela aldarrikatu zen. Hasierako kanal bakarrean, euskara zen nagusi, albistegi batzuk gaztelaniaz eskaintzen zituen arren. 1986an, gauzak aldatu egin ziren gaztelaniazko *ETB2* jaio zenean eta beraz, lehen kanalari soil-soilik euskaraz aritzeko aukera zabaldu zitzaionean. Geroago *ETB Sat* eta *Canal Vasco* satelite bidezko emisioak hasiko ziren eta,

2008an, euskarazko *ETB3*. Urte beteko epean, 2009an, abiatzekoa zen *ETB4* baina zehaztasun gehiagorik gabe atzeratua izan da bere hasiera data.

Urte batzuk beranduago, laurogeiko hamarkadaren lehenetan, Espainiar eta Frantziar Estatuetakoko lurraldeetarako telebista komertzialen seinaleak iristen hasi ziren.

Bestalde, urte hauetan guztietan, emisio esparru mugatua zeukaten tokiko telebista txikiak ugalduz joan ziren, kasu batzuetan berezko programazioa eskainiz baina, gehienetan, katean arituko ziren beste batzuetara konektatuz. «Telebista lokalak» etiketapean 60 emisore inguru zenbatu izan dira gure artean. Batzuek kablez emititzen dute (bereziki Nafarroako hegoaldean), beste batzuek, berriz, uhin hertziarren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuak urratsak egiten hasi dira emisore horiek erregularizatzeko eta kasu batzuetan emisioetan euskararen presentziari edo programazioaren edukiei kuotak ezarri dizkiete.

Bien bitartean, milurtekoen aldaketa urteotan Ipar zein Hego Euskal Herrian kablearen irismen tasak gora egin du eta asko dira antena parabolikoak agerian dituzten eraikinak.

Irratian gertatzen den bezala, telebista seinalea transmititzeko sistemak ugaritu badira ere, kanalak biderkatu eta, orokorrean, digitalizaziorako trantsizioan pausu sendoak eman, oraindik orain Parisetik eta Madriletik emititzen duten eta orotariko programazioak eskaintzen dituzten telebista kanalak nagusi dira.

2.2.4. Euskarazko telebistagintzaren errebaso historikoa

Euskal Herrian egiten ziren *France 3 Regionen* tokiko deskonexio urriak eta *TVEren* eguneroko albistegi laburrek leku gutxi uzten zioten euskarari telebistan. Izatekotan, 1976an, hegoalderako euskarazko edukiak ematen ziotuen *TVEren* «*Euskal Herri*» magazina aipatzea merezi du.

Horregatik, euskarazko telebistagintzaren sorrera *ETBren* emisioak hasi zirenean kokatu behar da. Ordutik hona, telebista horren lehenengo kanala euskaraz aritzen da, eta Kirola eta Haurrentzako edukiak nabari diren programa sorta eskaintzen du, Gizarte, Kultura eta Informazio gaietakoak ere badiren arren.

Zalantzarik gabe, *ETB1* euskararen legitimazio sozialean erreferentzia garrantzitsua da eta hizkuntza normalizatzeko bidean bitarteko indartsua ere, nahiz eta euskarazko kanal honen audientzia kopuruak historikoki txikiak izan, betiere euskaraz dakiten biztanleen ehunekoa mugatua baita.

EITB erakunde publikoa (euskal irrati eta telebista publikoak mendeantzen organoa) sortu zuen 5/1982 legean jada hau esaten da: «*Agintepide hori erabiliz, eta funtsezko herri zerbitzua dela aitortuz, Lege honen gai diren gizarte adierazpideak, herritar euskaldunak argipide eta politikan esku hartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eratzen dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren sustapen eta zabalkundearekiko gure erapidetza-*

ren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskararen sustapena eta zabalkundea bereziki kontuan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia Erkidego honetako herritarren eskubide eta izapideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri.»

Gerora euskarak euskal hedabide publikoetan jokatu behar duen paperean eraginik duen lege garapenik egon ez den arren, *EITBren* 2000-2007rako Plan Estrategikoak planteatzen zuen hedabide berrietan euskarazko bertsioa jaso behar zela (filosofia horretan sartuko lirateke *ETB 3* euskaraz eta *ETB 4* euskara eta gaztelaniaz aldi berean). *ETBren* web orrialdeetan badagoen oreka hori ez da errespetatua izan satelite bidezko emisioetan eta euskarri horretan eskaintza gaztelaniaren alde desorekatua dago nabarmen. *ETBSat*-en emisioen % 40 soilik da euskaraz, eta are txikiagoa da portzentaje hau Erdialdeko eta Hego Amerikarako satelitez emititzen duen *Canal Vasco*-ren emisioetan: % 10 alegia.

«2002-2005 programa-kontratuak» ere ez zuen kanalen arteko hizkuntza oreka aldatzeko asmorik eta printzipio orokorreko adierazpenetan geratu zen.

ETBren seinalearen estaldura teknikoa erabatekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan eta mugatuagoa Nafarroan, arrazoi politikoak tarteko oztopo amaigabeak jarri baitzaizkio. Nafarroako foru erkidegoko agintariek hedabideek euskara sustatu eta zabaltzeko duten eginkizuna onartu arren, errealitatea oso bestelakoa da. *ETB* normal hartzeko eragozpen praktikoak ezarri eta telebista digitalari buruzko araudia aplikatzerakoan ez die utzi jada euskaraz emititzen ari ziren kanalei egoera erregularizatzen.

Hitz gutxitan esanda, Nafarroan telebista digitalari buruz atera diren legeek agerian utzi dute ez dagoela inolako interesik euskarak emisioetan tartarik izan dezan. Nafarroan ikus-entzunezko jarduna arautzen duen Ikus-entzunezko Kontseilua dagoen arren (2001etik), emakida digitalek (bi orokorrak, *Canal 4* eta *Canal 6*; eta Iruñerako tokiko beste bat, *Popular TV*) ez dute euskarazko edukirik aurreikusten. Gainera, tokiko telebista digitalaren eremuak jartzeko oraingo sistemak ere ez du horretan ezer hobetuko denik iragartzen eta, beraz, euskarazko tokiko telebisten etorkizuna benetan kezagarria da. Horrela, *Ttiti-ttapiak* emititzeari utzi zion 2009. urtearen hasieran, Nafarroako Gobernuak lizentzia digitala ukatu eta diru laguntzarik gabe utzi ondoren. Badirudi *Xaloe Telebista* bide beretik doala.

Lurralde kontinentaletan, udal erakundeek *ETBren* seinalea hedatzea erraztu dute eta gaur egun oso estaldura handia dauka, uhinez zein kablez. Edozelan ere, Frantziar Errepublikaren hizkuntza diseinutik beretik, hizkuntza ofizial bakarra frantsesa delarik, agerikoa da gutxituriko hizkuntzak babesteko araurik ez dagoela, ez eta hizkuntza horietan aritzen diren hedabideak sustatzeko planik ere. Panorama horretan, euskara telebista zirkuitutik kanpo dago, *France 3 Euskal Herri* eguneroko albistegian euskaraz ematen duen erreportajetxoak kenduta.

Bestalde, laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarrekoren hasieran zegoen tokiko telebisten aldeko gizarte mugimendu indartsuaren

ondorioz Euskal Herrian hainbat kanal sortu ziren, horietariko batzuk euskara hutsean ari ziren eta beste batzuk euskarazko programazioari leku bat uzten zioten.

Mugimendu hori, 2006an tokiko telebistentzako berariazko legerik ez zegoenez, modu kaotiko samarrean garatu zen.

Hala eta guztiz ere, aipatzekoak dira euskara hutsean aritzen direnen artean *Goiena Telebista* (Goiena tokiko komunikazio taldeari lotuta, *Arrasate Telebista*, 1990 eta *Atxabalta Telebista*, 1999 batzetik sortua), *Zarautz Telebista*, *Plentzia Telebista*, *Ttipi-Ttapa Telebista* (desagertuta jada), *Xaloa Telebista* edo *Goierrri Telebista*. Gainera, Iparraldeari dagokionez, uhin herztzarren bidezko telebista mugatzen duen lege frantziar zorrotza dela eta, kontuan hartzekoak dira noizbehinkako emanaldiak egin dituen *Aldude Telebistaren* esperientzia edo Internet bidez emititzen dutenen (*TVPI* edo *Ezpeleta Telebista* berriagoa) urratsak.

Balantzaren beste aldean, gaztelaniaz ala frantsesez emititzen duten eta euskarari kasurik egiten ez dioten telebista publiko eta pribatu handiak ditugu. Gehien gehienak Parisetik edo Madriletik datozen emisio horiek ez diote tarte handirik uzten programazio deszentralizatuari, noizean behineko albiste deskonexio laburrak ez badira. Horri guztiari hamarkadatan izan diren gaztelaniazko tokiko telebistako kanal alegalak (oso errotuta Euskal Herri penintsularreko hiriburu eta hiri handietan) eta kable zein satellite bidezko emisioak gehitzen badizkiogu erraz ondorioztatuko dugu euskarak telebista sisteman oso pisu txikia duela. Era berean, Euskal Herriko audientzia datuek erakusten dute historikoki herritarren gehiengoak asiago aukeratzen dituela kanpotik eta gaztelaniaz edo frantsesez heltzen diren emisioak.

2.3. Telebistagintza gaur egun

Lehenago aipatu dugun bezala, euskarazko telebistak ez du lekurik lortu Madriletik eta Parisetik datozen eskaintzen barruan, eta praktikan *ETB*1eko emisioetara, *Euskaltel* telekomunikazioen euskal enpresak kable bidez zabaltzen duen haurrentzako kanalaren emisio batzuetara, eta euskarazko tokiko kanaletara mugatzen da. Gainera, kopuru horiei kable bidezko *Canal Vasco*-ren eta *ETBSaten* emisioei dagokien partea gehitu beharko genieke (ez Euskal Herriko biztanleei zuzendutako eskaintza aztertzeko, jakina, satellite bidezko emisio horiek kanporako pentsatuta daudelako).

Hori esanda, gaur egun, ezbairik gabe, euskarazko telebistagintzari buroz hitz egitean *ETB*1 da aztergai nagusia, bai eskaintza ikertzeko orduan eta baita euskarazko telebista emisioei audientziak nolako erantzuna ematen dion ikustekoan ere.

*ETB*1eko programazio-aulak eguneko 24 orduak betetzen ditu ia-ia. Hasi-eran, gaztelaniazko kanala sortu arte, eman bazituen ere hainbat programa

gaztelaniaz edo gaztelaniazko azpitituluekin, gaur egun euskara hutsean aritzen da.

*ETB1*en eskaintzaren baitako generoen azterketa eginda, oso argi ikusten da programazio Soziala deiturikoa (Kultura eta Informazioa jorratzen duena), Miszelanea (barietateak, umorea eta entretenimendu arina biltzen duen saskinaskia) eta Kirolak direla nagusi. Azken honek markatzen du bereziki euskal telebista publikoko euskarazko eta gaztelaniazko kanalen arteko desberdintasunik handienetako bat, taulan ikusten denez.

ETB1ek eta ETB2k telebista genero bakoitzari eskaintzen dion emisio denboraren portzentajea (TNS, 2008)

Generoa	ETB1	ETB2
Kultura	27,5	13,2
Informazioa	10,7	12,8
Miszelanea	30,3	16,9
Fikzioa	5,9	46,3
Kirolak	13,2	0,3
Musika	6,4	0,8
Lehiaketak	2,7	8,9
Bestelakoak	3,3	0,8

Nolabaiteko «paper banaketaren» ondorioz, euskaraz aritzen den kanalean Kirolak erabiltzen dira, euskal herritarrentzat genero erakargarri gisa, eta euskaraz apur bat ala ezer ez dakitenek segitzeko moduko eman-kizuna izaten denez gero audientzia kopuru altuak eskuratzen ditu. Fikzioarekin alderantziz gertatzen da. Harrigarria bada ere, Fikzioa oraindik euskarazko telebistak ondo profitatu ez duen generoa da, eskaintza alde-tik eta, are gehiago, kontsumoari dagozkion indizeak oso baxuak dira, tradizio handiko serieak, besteak beste, *Goenkale*, eta berriagoa den *Martin* arrakastatsuak egon badauden arren. Film luzeak, ordea, ez zaizkie herritarrei erakargarriak nahiko egiten. *ETB2*rekin alderantziz gertatzen da, programazioaren euskarri nagusia Fikzioa baitu, eta Fikzioa erabiliz Madriletik emititzen duten telebista kanalekin ere lehiatzen saiatzeko moduan dago. Bigarren kanalean, gaztelaniazkoan, ez zaio ia tarterik uzten Kirolari.

Programa eskaintzaren eta kontsumoaren arteko jokoak oso emaitza desberdinak ematen ditu kanal batean eta bestean.

Lehenago esan dugunez, euskal herritarrek, oro har, (hemen zehazki Euskal Autonomia Erkidegoa hartuko dugu hizpide, TNS audimetria enpresak eremu hori definitzen duelako bere azterketetan), gaztelaniazko emisioetara

jotzen dute. Egia da gaztelaniazko eskaintza askoz ere oparoagoa dela, baina egia ere bada azkenean euskarazkoak ez diren emisioetara jotzen duela jendeak errazago.

Horrela, *ETB1*ek 2008an % 4,4ko audientzia soilik zuen, eta *ETB2*k, berriz, % 15,1ekoa, ondoko taulan ikusten denez.

Euskal Autonomia Erkidegoan audientziarik handiena duten telebisten kuota (TNS, 2008)

Kanala	%	Hizkuntza
Tele 5	22,1	Gaztelania
ETB 2	15,1	Gaztelania
TVE 1	14,4	Gaztelania
Antena 3	13,5	Gaztelania
Cuatro	6,7	Gaztelania
La Sexta	5,0	Euskara
TVE 2	4,5	Gaztelania
ETB 1	4,4	Gaztelania
Kanal tematikoak	10,5	—
Bestelakoak	2,9	—

Audientzia datu hauek dezente aldatzen dira soilik euskal hiztunen gaineko azterketa egiterakoan. Jende multzo horretan (adibiderako 2006ko datuak erabili ditugu), noski, gora egiten dut *ETB2*k eta, bereziki *ETB1*ek, hala ere, ranking orokorra antzera mantentzen da.

Euskaldunen artean audientziarik handiena duten telebisten kuota (TNS, 2006)

Kanala	%	Hizkuntza
Tele 5	24,2	Gaztelania
ETB 2	17,3	Gaztelania
Antena 3	15,5	Gaztelania
TVE 1	13,1	Gaztelania
ETB 1	9,1	Euskara
Cuatro	6,5	Gaztelania
TVE 2	4,5	Gaztelania
La Sexta	1,6	Gaztelania
Kanal tematikoak	10,5	—
Bestelakoak	2,9	—

Tokiko telebistei buruzko audientzia datu orokorrik ez dagoen arren, hainbat azterketen emaitzek erakusten dute Informazioa, Eztabaida saioak, Erreportajeak eta tokiko Kirolei buruzko emanaldiek bere garrantzia daukatela tokiko hedabide hauen ikus-entzuleria erakartzeko orduan. Horrela da, esaterako, Deba Goienarako emititzen duen *Goiena Telebista* kanalaren kasuan eta bertako biztanleen % 60k astean emisio horiek ikusten ditu tarteren batean.

Ez dago satellite bidezko *Canal Vascoren* eta *ETBSaten* emankizunei buruzko audientzia daturik.

Amaitezko, lehen esan dugunez, digitalizazioaren testuinguruaren barruan (itzalaldi analogikoa 2010eko udaberrirako jarrita dago), 2008ko urrian *ETB3* sortu zen, euskaraz emitituz eta batez ere Haurrentzako programak, Kultura eta Gizartearen alorreko edukiak eskainiz. Telebistagintza tematikoaren esparruan, kanal berri hau arrakastatsu suertatzen ari da eta audientzia maila kontsideragarriak lortzen dabil. 2009ko udazkenerako, eta beti *EITBk* kudeatzen duen multiplex digitalaren barruan, *ETB4* emititzeko asmoa aurreikusita zegoen, formatu berriko telebista eskaintza batez eta Gizarte eta Informazio alorreko edukiekin, euskaraz zein gaztelaniaz.

2.4. Irratigintza gaur egun

Espainiar zein frantziar emisore publikoen eta pribatuen jabetzan gertatu den kontzentrazioak, irratiko formatuen homogeneizatzeko joerak eta gaztelania zein frantsesa soilik erabiltzeak, gainera, audientzia emaitza onek ematen duten «bedeinkapenaz» biribilduak, irratigintzaren panorama monokorde samarra osatzen dute. Gertuko emisoreei edo euskaraz ari direnei geratzen zaizen tarte oso txikia da.

Ikus dezagun zer alderdi aipagarri dituzten gaur egun euskaraz aritzen diren hogeita hamar inguru emisoreek eta horretarako hiru eredu handitan sailkatuko ditugu: irratigintza komertziala, publikoa eta elkarte edo gizarte mugimenduek sustatutakoa.

Lehenik eta behin, euskarazko irratik komertzialei dagokienez, oso adibide gutxi ditugu, eta irratik txikiak dira. *Bizkaia Irratia* da, agian, esanguratsuenak. Bizkaia osorako emititzen du eta jatorriz elizarena izan arren gaur egun beste bazkide batzuk ere baditu eta publizitatearen bidez diru sarrerak ere biltzen ditu. Antzekoak dira Gipuzkoako *Loiola-Donostia Herri Irratiak* (programa beraren barruan euskara eta gaztelania erabiltzeko oso modu interesgarria lantzen dute) eta *Arrate Irratia* eta Nafarroan *Xorroxin Irratia*. Dena edo gehiena euskaraz emititzen duten irratik komertzialen alor honetan lehen ere aipatu dugun *Euskal Herria Irratia* dago; urte luzez Nafarroako gobernu autonomoarekin auzitan dabilena, arrazoi politikoak tarteko, gobernuak ukatzen dion emititzeko lizentzia lortu guran.

Emisore publikoei dagokienez, bi mota aipa daitezke. Batetik, Eusko Jaurlaritzarenak direnak eta Euskal Herri osorako emititzen dutenak, oro-

tariko programazioa eskainiz *Euskadi Irratiaren* kasuan eta *Gazteari* dagokionez, tematikoki musikan espezializatua eta xede-talde gazteagoa duena.

Bestetik, eta betiere irrati publikoaren esparruan, baina emisio eremu txikiagoan edukita, eskualde edo udal emisoreak ditugu, hala nola, *Oñati Irratia* edo *Arrasate Irratia*, *Oiartzun*, *Txolarre*, *Zirika* edo *Itsuki*. Nafarroan ere, maila honetan aritzen diren euskarazko emisoreen kopuru garrantzitsua da, besteak beste *Esan Erran*, *Beleixe*, *Karrape* edo *Aralar* ize-nekoak.

Hirugarren ereduari dagokionez, eta elkarteetakoak, libreak edo gizarte mugimenduek sortutakoan artean, aipagarri dira Hegoaldeko hainbat emisore, hala nola, *Matrallako* (Eibar), *Ttanttakun* (Donostia), *Arakala* (Lekeitio), *Irrintzi* (Astigarraga) edo *Molotoff* (Hernani). Eta horiei, elebitan aritzen diren eta esperientzia interesgarriak azaleratzen dituzten beste batzuk ere gehituko dizkiegu, hots, *Hala Bedi*, *Eguzki*, *Garraxi*, *Koska* edo *Uhinak*.

Emisore horietako batzuek, berehalaxe aipatuko ditugun Iparraldeko beste batzuekin batera, 2001ean, *Arrosa*, sarea sortu zuten programak ekoizteko eta koordinatzeko eta modu horretara eguneko emisio-orduak osatu ahal izateko.

Irrati txiki hauek maisuki erabiltzen dituzte teknologia berriak programak ekoizteko eta elkartrukatzeko orduan eta, gainera, malgutasun handia erakutsi dute eduki eta formatu berrietara egokitzerakoan. Joera hori agerian geratu zen *Topagunea*, euskarazko hedabideen koordinakundea sortu zenean, eta baita orain ere, irratiarako *Arrosa* bezalako esperientziekin.

Gainera, Iparraldeko irratiari dagokionez, alegia, *Gure Irratia*, *Irulegiko Irratia* edo *Xiberuko Botza* emisore bakoitzaren izenaz haratago *Euskal Irratiak* deitura orokorra erabiltzen hasi dira, bereizgarri gisa, irrati panorama zatikatuan eta batzuetan nahasian tokia egiteko.

Amaitzeko, eta irratiagintzan aplikatutako teknologia berrien esperientziak aipatuz, interesgarria da, *Irratia.com* izeneko; Interneten bidez zabalitzen da eta nagusiki euskaraz eta gaztelaniaz emititzen duen arren, frantsesez ere eduki batzuk eskaintzen ditu.

Irratiaren kontsumoari eta audientzia horren zatirik handiena bereganatzen duten emisoreak aipatu aurretik gogoan edukitzekoa da euskal herritarren artean irratiak onarpen handia lortzen duen hedabidea dela. Horrela Euskal Herri penintsularrean, 14 urtetik gorako ia % 60k bi ordu baino gehiago ematen ditu irrati entzuten. Minutu kopurua gehituz joan da gainera azkeneko urteotan eta irrati tematikoari hobeto joan zaion arren, ez dio horrek orotariko irratiagintzari nagusitasunik galarazi.

Hego Euskal Herrian, emisoreen arabera audientzia nola banatzen den begiratzean argi ikusten da estatuko eta gaztelaniazko irratiak duten indarra, bertokoen eta bereziki euskaraz emititzen dutenen aldean.

**Hego Euskal Herrian audientzia gehien duten irratrien kuota (sharea)
CIESetik ateratako kalkuluak, 2008ko metatua)**

Irrati emisorea	%	Hizkuntza
Cadena SER	19,2	Gaztelania
Radio Euskadi	14,6	Gaztelania
40 Principales	11,5	Gaztelania
Onda Cero	6,0	Gaztelania
Radio Nervi3n-Gorbea	5,6	Gaztelania
RNE	4,6	Gaztelania
COPE	4,3	Euskara
Gaztea	4,1	Gaztelania
Cadena 100	4,1	Euskara
Euskadi Irratia	3,6	Gaztelania
Kiss FM	3,5	Gaztelania
Herri Irratia	3,2	Euskara eta gaztelania

3. PRENTSA IDATZIA

Egunkari idatziek pisu espezifiko handia dute Euskal Herrian, erregio eta estatu mailako proiektzioko talde multimediak sortzeko oinarri izan direlako eta toki, probintzia zein nazio mailako egunkari ugari editatzen direlako.

Gainera, oro har, egunkariak oso sartuta daude eta oso kontuan hartzeko irakurle kopuruak lortzen ditu.

Euskal Herrian, hiru hizkuntzetako edozeinetan, guztira 10 egunkari editatzen dira. Kopuru horri Ipar edo Hego Euskal Herrirako edizio espezifikokoak dituzten beste hiru gehituko dizkiegu. Gainera, Madril edo Parisen editatzen diren egunkariak, orotarikoak zein kirol edo ekonomian espezializatuek, hedapen handia dute euskal herritarren artean.

Egunkariak oso barneratuta daude Euskal Herrian; mila biztanleko 179,1 aleko kopuruak, Espainiar Estatuan, baita Frantziar Estatuan ere, iritsitako mailak baino askoz ere gorago dagoen kuota adierazten du (105,5 eta 145,7 hurrenez hurren).

Guztira, euskal herritarren erdiak baino gehiagok irakurtzen du kioskotan saltzen diren miloi erdi inguru egunkari aleren bat.

Salduenak Vocento taldekoak dira (*El Correo* eta *Diario Vasco*), jarraian datozelarik *El Diario de Navarra* eta *Gara*, gaztelaniaz, eta *Sud Ouest*, frantsesez.

Irakurleei dagokienez, egiaztatzen da gaztelaniaz editatzen direnak direla kuotarik handienak lortzen dituztenak.

**Euskal Herrian irakurlerik gehien duten egunkarien kuota
(CIESetik ateratako kalkuluak, 2008ko metatua)**

Egunkaria	%	Hizkuntza
<i>El Correo</i>	30,4	Gaztelania
<i>El Diario Vasco</i>	19,4	Gaztelania
<i>Diario de Navarra</i>	12,9	Gaztelania
<i>Gara</i>	6,5	Gaztelania
<i>Marca</i>	5,8	Gaztelania
<i>Diario de Noticias Navarra</i>	5,5	Gaztelania
<i>Deia</i>	5,3	Gaztelania
<i>El País</i>	4,7	Gaztelania
<i>Berria</i>	4,4	Euskara
<i>El Mundo</i>	2,5	Gaztelania
<i>Diario de Noticias Álava</i>	1,1	Gaztelania

3.1. Euskarazko prentsaren historia

Euskarazko prentsa XIX. mendean sortu zen, gaztelaniazkoa eta frantsesezkoa baino geroago. Aurrekarietan almanakak aipatu behar ditugu, auzokoen hizkuntzetan mende bat edo bi lehenago argitaratu zirenak. Beste leku batzuetan ere igarritako beste ezaugarri bat da mugimendu politikoak eta euskarazko hedabideak sortzea lotuta joan direla. Horrela, gerra karlista bete-betean zegoela (1833-1839) bando liberala karlisten zaleago ziren baserri-tarrei zuzendutako euskarazko egunkaria sortzen saiatu zen baina huts egin zuen. Euskarazko lehenengo aldizkaria (*Uscal Herrico Gaseta*, 1848) baserri-tarren artean propaganda egiteko argitaratu zen halaber. Garai hartan ere Amerikan (AEBn eta Latinamerikan) hasi ziren aldizkariak aipatuko ditugu, XIX. mendean kontinente berrira emigratu zuen euskal diaspora garrantzitsua-
rentzako hedabide gisa.

Gerora, XX. mendearen hasieran, euskal abertzaletasuna piztu eta gartz-
eak euskarazko hainbat hedabide idatzi sortzea ekarri zuen, baita genero ugari azaltzea ere, hots, erlijiozkoak, politikoak, kultura eta literaturakoak eta abar. Giro horretan sortu zen *Argia* aldizkaria (1919), gaurko hedabide idat-
zien dekanoa. Idatzizko prentsaren loraldi horren barruan lehenengo egun-
karia, *Eguna*, sortu zen, 1937an, gerra bete-betean zela. Baina gerrak egunkari hura eta euskarazko prentsaren garapena akabatu zituen, baita, esan bezala, garai hartako kulturaren pizkundea ia osorik itzali ere. Salbatu zen apurrak aurrera segitu zuen Euskal Herri kontinentalean eta Amerikan, diasporaren eta gerrako errefuxiatuen eskutik.

50eko hamarkadan, arestian azaldu dugunez, hizkuntza eta kultura be-
rreskuratze mugimendu berria izan zen. 1956an *Jakin* aldizkaria sortzea-

rekin lotu ohi da mugimendu haren hasiera. Geroago beste hedabide batzuk sortu ziren 70eko hamarkadara arte. Horrela, Franco jenerala hil eta gero eta diktaduratik konstituzio-sistemara igarota, oso ibilbide ezberdinak egin zituzten argitalpen berriak irten ziren. Haietatik bi egunkari sortu ziren (*Egin* eta *Deia*, 1977an), euskal abertzaletasunari lotuta; euskara sartzen hasi ziren euren orrialdeetan, % 20 baino gutxiago beti.

80ko hamarkadan euskal prentsa finkatuz joan zen, lehen aipatu ditugun aldizkarien eta hainbat ibilbidetako beste batzuen eskutik. Finkatze horri esker profesionalen eta irakurleen masa kritikoa eratuz joan zen, 1990ean euskarazko lehenengo egunkaria sortzea ekarriko zuena, *Euskaldunon Egunkaria*, alegia, lehenago esan dugun gerrako egunkariaren salbuespenarekin, jakina. Egunkari hori herritarren harpidetzaren bidez jaio zen eta, paradoxikoa dirudien arren, hasi aurretik eta hurrengo urteetan zehar, euskal erakunde autonomikoen erabateko boikota pairatu eta aurre egin behar izan zion. Boikotaren arrazoiak erakundeok euskararen aldeko herri mugimenduarekiko zuten mesfidantzan bilatu behar dugu. Hala ere, diglosia-egoera ez ezik euskal administrazioa ere aurka izan arren, egunkariak lekutxoa aurkitu zuen prentsaren panoraman, 10.000 eta 12.000 arteko tiradarekin eta publiko fidelarekin. Baina urterik gogorrenak gainditu eta gero, eta Eusko Jaurlaritzarekiko harremana normaltzea lortu ondoren, ezin izan zen eragotzi Espainiar Guardia Zibilak 2003ko otsailean egunkaria ixtea, epaile baten aginduz, eta Jose Maria Aznarren Gobernuak espresuki babestuta. Zuzendaritzako hainbat pertsona atxilotu eta batzuk torturatu ere torturatu zituzten. Era berean, instalazioak bahitu zizkieten, ETArekin harremanak zituztela leporatuta. Egia esan, lerrook idazten ari garenean (2009ko urria) oraindik ez da inolako epaiketarik egin orduko salaketak aztertzeko, eta fiskalak ere kasua artxibatzeko eskatu du inolako delitu zantzurik ez dagoela eta.

Gizarteak egunkaria itxi zutenean eman zuen erantzuna ikaragarria izan zen, eta herritarrengandik dirua biltzeko beste kanpaina bat abiatu zen; lau hilabeteen 4,6 milioi euro bildu ziren. Mugimendu horri esker urte bereko ekainean *Berria* egunkaria atera zen, aurrekoaren jarraipen gisa. Poliziak itxitako bigarren egunkaria ireki zen horrela; izan ere, 1998an espainiar epaileek *Egin* itxia zuten, gehiena gaztelaniaz baina artikuluen % 15-20 euskaraz argitaratzen zituen egunkaria, hari ere ETArekin lotura zuela leporatuta. Hamaika urte behar izan dira Espainiako Epaitegi Gorenak egunkaria ixteko ebazpen hura atzera bota dezan; beranduegi ordea, jadanik enpresa guztiz deseginda dagoelako. Azkenik, paralelismoarekin segituz, orduan ere herri kanpaina batean sei hilabeteen sei milioi euro baino gehiago biltzea lortu zen, eta egunkari berria sortu zen, *Gara*, *Eginen* antzekoa orientazioan eta hizkuntzen erabileran.

3.2. Euskarazko prentsa gaur

3.2.1. Egunkariak Euskal Herrian

Gaur egun Euskal Herri osoan euskaraz soilik zabaltzen den egunkari bakarra dago, *Berria*. Lehen esan dugun bezala, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gero sortu zen, gizartearen ekimenez bata eta bestea. Horrela 24.000 partaidetza txiki baino gehiagoren jabetzapean dago, akziodun bakar handirik gabe. Kapitala, azaldu dugu lehen, 4,6 milioi eurokoa da, eta 2005erako aurrekontua 11 milioi izan ziren. Salmentak (% 46) eta publizitateko diru sarre-rak (% 34) ditu aurrekontua finantzatzeko iturri nagusiak, eta diru laguntza publikoak % 16 baino ez dira. 102 pertsona ari dira egunkarian lanean, eta beste 153 taldeko beste enpresetan (edizio digitala, administrazioa, publizitate-a, banaketa eta abar).

Edukiei dagokionez, askotariko gaiak jorratzen dituen egunkaria da, eta orrialdeetan (normalean 48 eta 64 artean eta astekari gehigarriak) politika, gizarte, nazioarteko informazio, iritzi, kultura, kirol, agenda eta abarrak ditu hizpide, gainerako egunkarien antzeko egiturarekin. Esan genezake, gainera, euskal lurralde osora zuzendutako egunkaria dela, hegoalde zein iparraldera, alegia, zabalpenari ez ezik, informazioen eta artikuluen orien-tazioari ere dagokionez. *Berriaren* atalen artean, kultura eta nazioartea dira oniritzirik handienekoak. Nazioartekoak ondo erakusten du euskarazko egunkari horrek ez duela, hizkuntza tarteko, hedabide toki-tokikotzat jo de-zaten nahi. Gurari hori, aldi berean, euskal hizkuntzen artean eta mundu osoan, Euskal Herriari buruzko erreferentziazko hedabide bihurtzeko inte-resarekin lotu da. Ez zen kasualitatez izan *Euskaldunon Egunkaria* Interne-ten egunero ingelesezko edizioa argitaratu zuen Euskal Herriko lehena eta Espainiar Estatuko osoko bigarrena. Ekimen hura, ordea, bertan behera ge-ratu zen 2003an egunkaria itxi zutenean, eta oraindik zati batean soilik be-rrartu du *Berriak*.

Berriak egunean 23.000 ale inguru ateratzen ditu, eta erdia harpidetzen bidez banatzen ditu; eguneko 66.000 irakurle ditu, Euskal Herriko prentsa irakurleen % 4,4, alegia. Euskaraz alfabetatutako irakurleen kopurua kon-tuan hartzen badugu, portzentajea % 15etik gora igotzen da. Bestalde, *Be-rria* asteen bizpahiru bider irakurtzen duten pertsonen erreferentzia hartzen badugu, bikoiztu egiten dira kopuruak. Hots, euskaraz irakurtzeko gai diren 16 urtetik gorako pertsonen % 30ek sarri samar irakurtzen dute *Berria*. Ira-kurleen profilari dagokionez, *Berria* nabarmentzen da beste egunkarien ar-tean audientziaren prestakuntza eta lanbide mailarengatik. Hori, eta euska-razko egunkari orokor bakarra izateak, Euskal Herriko egunkarien artean duen pisu espezifikoa irakurleen datuek iradokitzen dutena baino handia-go ia zatea dakar. Era berean, gizartearen ekimenaren emaitza izateak berak, eta euskarazko hedabideen aldeko beste ekimen batzuekin duen harremanak pribilegiozko lekuan jartzen dute euskal hiztunen unibertsoaren barruan.

3.2.2. Tokiko egunkariak

Izan ere, *Berriak* beste ekimen batzuekin duen harremanari esker sortu dira euskarazko beste zazpi egunkari azken urteotan. Denak *Hitza* izen orokorraren azpian biltzen dira, eta eskualde mailakoak dira: *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* (2001), *Oarsoaldeko Hitza* (2003), *Lea Artibai eta Mutrikuko Hitza* (2003), *Goierriko Hitza* (2004), *Urola Kostako Hitza* (2004), *Donostialdeko Irutxuloko Hitza* (2005), eta *Busturialdeko Hitza* (2005). Tokian tokiko 270 elkarte eta konpainia baino gehiagorekin elkarlanean, *Berriaren* argitaratzaileak tokiko informazioko egunkari horiek sortzen parte hartu du. 5.000 eta 10.000 ale arteko tiradekin, guztira 50.000 ale baino gehiago biltzen dituzte denen artean, batez beste 8-12na orrialderekin. Harpidedunen artean banatzen dira, gehienetan doan, batzuek kuota bat ordaindu arren. Publizitatearekin eta diru laguntza publikoekin finantzatzen dira nagusiki. Irakurle kopurua, oro har, *Berria* egunkariarena baino handiagoa da, egunero 89.000 irakurle eta noizean behineko 208.000 irakurlerekin. Denera, egunkari horietan 60 kazetari baino gehiago aritzen dira lanaldi osoan zein partzialean, eta beste 160 salerosketa edo banaketa kontuetan.

Berria egunkaria eta euskaraz argitaratzen edo euskararen alde aritzen diren elkarteak elkartzeko estrategiak bi helburu handi ditu. Batetik, egunero euskaraz irakurtzea sustatu nahi da, oraintsura arte batez ere ahoz erabili eta transmititu den hizkuntza batentzat funtsezkoa, euskarako egunkariak erreferentziazko hedabide bihurtuko bada. Bestetik, euskarazko hedabideak garatzen segitzea ahalbideetako duen publizitateko merkatua sortu nahi da, gizartearen ekarpenen edo subentzio publikoen menpe geratu barik.

Beste esparru batean, *Berria* eta tokiko hedabideen arteko lankidetzaz errazten ari da, ezbairik gabe, une hauetan euskarazko tokiko telebistak sortzeko *Hamaika* sustatzen ari den proiektuak garatzen ari dira (ikus tokiko telebistaren atala).

Berriak hizkuntzaren normalizazioan egiten ari den ekarpena *Euskaldunon Egunkariak* 1990ean hasitako lanaren jarraipena da. *Estatusaren* ikuspegitik, euskarazko egunkaria pertsona askorentzat egunkari osagarria izatek inguruan eta munduan gertatzen denaren informazio iturri nagusi izatera igaro da. *Corpusaren* ikuspegitik, euskarazko egunkarian erabiltzen den estiloak duela berrogei urte soilik batu zen hizkuntza garatzea erraztu du. Askok lagundu du horretan egunkariaren irakurleen artean gizartearen proiektzio handia duten profesional kopurua handia izatea (adibidez, hezkuntza alorrekoak), hedabidearen irismena biderkatu dutenez gero.

Tokiko egunkarien esparruan *Hernaniko Kronika* ere aipatuko dugu; bi orrialde ditu (batzuetan lau), eta astean 6 zenbaki ateratzen ditu. Normalean ia 5.000 pertsonen irakurtzen dute 3.600tik gorako tiradarekin.

3.2.3. Astekariak eta prentsa espezializatua

Argia astekaria, 1919an sortu zenez euskarazko prentsaren aitzindaria ez ezik, euskarazko informazio astekari nagusia ere bada. Aldizkari horren inguruan eratu da ondoren egunkariak garatzea ahalbidetu duen kazetarien masa kritikoa. *Argiak* 10.500 aleko tirada du, gehienak (8.000) harpidedunak, eta ohiko 12.000 irakurle kalkulatzeko zaizkio. *Argiarekin* batera informazio orokorreko beste bi aldizkari aipatuko ditugu: *Herria*, 60 urte baino gehiago dituen aldizkaria, kontinenteko probintzietako jendeari zuzenduta batez ere; eta *Aldaketa 16*, duela gutxi sortutakoa, espainiar esparruko aldizkari baten (*Cambio 16*) euskarazko filial bakarra.

Bestalde, euskarazko aldizkari espezializatuak ia ehun dira, eta gehienak hileroko edo bi hiletik behin ateratzen dira. Ohiko 3.000 irakurle baino gehiago dituzten artean gazteentzako *Gaztetxulo* aldizkaria, euskara ikasten ari diren helduentzako *Aizu!* eta *HABE*, *AEK* helduak alfabetatu eta euskalduntzeko gizarte mugimenduarena eta *HABE* erakundeetako haren kontra-partidarena, hurrenez hurren, eta *Elhuyar*, zientzietako aldizkaria, euskara teknikoaren garapenaren hainbat egitasmoari lotua.

Gainerako aldizkari espezializatuen artean inoiz gutxi gaintitzen da 2.000 aleko tirada, eta oso gai ezberdinak jorratzen dituzte: akademikoak, zientziak, literatura, euskara ikastea, erlijioa, entretenimendua, eta abar.

3.2.4. Tokiko prentsa

Egunerokoa ez den prentsaren barruan euskarazko tokiko prentsak aipamen berezia merezi du; euskarazko tokiko prentsa ia 70 argitalpen dira, astebete eta sei hilabete arteko maiztasunarekin. Multzoan, hedapen nabaria dute, 160.000 ale gutxi gorabehera (euskal hiztunen etxeetan gutxienez euskarazko hedabide bat dagoela ziurtatzen du horrek). Gehienak doan banatzen dira, diru publikoarekin, publizitatearekin eta ekarpen partikularrekin finantzatuta. Batzuk herrietan, beste batzuk eskualdeetan banatzen dira, eskualde mailakoak editatzeko joera gero eta handiagoa delarik. Tokian tokiko gaiak jorratu ohi dituzte.

Horien guztien artean *Goiena* komunikazio taldeari (ikus tokiko telebistari buruzko atala) loturiko *Goienkaria* eskualdeko aldizkaria nabarmentzen da, 21.500 aleko tiradarekin eta antzeko irakurle kopuruarekin. Atzetik *Goierriarra*, *Anboto* eta *Eta Kitto* datoz, ohiko 10.000 irakurle ingururekin.

3.2.5. Euskararen presentzia gaztelaniazko eta frantsesezko prentsan

Euskararen presentzia gaztelaniazko hedabide idatzietan ez da inoiz ere % 20tik gorakoa izaten; *Gara* egunkaria kopuru horretatik gertu badago ere. *Garan* iritzi artikulua zein edozein motatako informazioak aurkituko ditugu euskaraz, atal zehatz batean erabiltzera mugatu gabe. Euskal Herrian argitaratzen diren gainerako egunkarietan euskara gehigarrietan edo atal zehatze-

tan agertzera edo lantzean behin erabiltzera jotzen da. Esan behar dugu Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematen dizkiola gaztelaniazko prentsari euskarazko atalak edo artikulak argitaratzeko, milaka euskal hiztunek kontsumitu ohi dituzten hedabideetan euskarak tokia izatea sustatzeko. Bestalde, aipatuko dugu Euskal Herriko prentsa editorerik handiena (egun *Vocento*, prentsa irakurleen % 50arekin) saiatu zela *Zabalik* euskarazko astekaria aurrera ateratzen baina huts egin zuela. Sektore batzuek egitasmo hura gerora euskarazko egunkaria sortzeko lehenengo urrats gisa ikusi zuten, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berriarekin* esperientziari esker horretarako merkatua bazegoela egiaztatu ondoren. Baina 2005ean itxi zuten, sei urteko ibilbidearen ostean.

Gainerako prentsari dagokionez, oso kasuistika ezberdinak aurkitzen ditugu, argitalpen elebidunak (sarritan erakunde publikoen buletinak), zein prentzia anekdotikoa gaztelaniazko, frantseseko edo beste hizkuntza batzuetako aldizkarietan.

4. HEDABIDE BERRIAK

Euskarak hedabide elektronikoetan duen presentzia bi faktore nagusik zehazten dute. Batetik, hizkuntza gutxitua, diglosikoa, milioi bat hiztun ere ez duena izatea. Bestetik, Euskal Herriko maila ekonomikoa, Barne Produktu Gordina Europako batez bestekoa baino apur bat handiagoa duena. Bi faktore horiek joera kontrajarriak sortzen dituzte, argi dago. Horrela, lehenengoak euskara hedabide berrietan erabiltzea eragozten du nolabait eta bigarrenak, berriz, bultzatu: adibidez, Euskal Herriko etxeen erdiak sarera konektatuta daude, 15en Europako batez bestekoen antzera eta Interneten erabiltzaileen portzentajea (Eurostaten terminologiaren arabera, «azken hiru hilabeteetan sarera konektatu diren pertsonak») % 41 da Euskal Autonomia Erkidegoan. Ordenagailuren bat duten etxeen portzentajea hamar puntu altuagoa da.

Euskara hedabide horietan erabiltzen diren estandarretara egokitzeari buruz, ez dago oztoporik alfabetoari dagokionez, beste hizkuntza batzuekin gertatzen den bezala: euskararen alfabetoa oso ondo egokitzen da mendebaldeko teklatu eta kodeetara, eta ez du Europako beste hizkuntza batzuek eza gutzen ez dituzten karaktere bereizgarriak. Baina inolako familiarik gabeko hizkuntza izateak eta inguruko zein komunikazioaren teknologia berrietako hizkuntza nagusien gramatikatik hain urrun dagoenez, itzulpen automatikoa elkarren antzeko edo gertukoagoak diren hizkuntzen artekoa baino zailago egiten dute. Horrek, eta hizkuntzaren txikitasunak itzulpen sistematik beste hizkuntza batzuetan bezain garatuak ez izatea ekarri du, urrats garrantzitsuak egin badira ere. Gaur egun euskarara eta euskaratik egiten diren itzulpen automatikoaren alorreko ekimenik garrantzitsuenak *Opentrad* egitasmoaren inguruan artikulatzen da, hainbat unibertsitateen ekimenez eta kode irekiko teknologietan oinarrituta. *Opentrad* Espainiar Estatuko hizkuntza ofizialen arteko itzulpen automatikoko egitasmoa da (euskara, gaztelania, kata-

lana eta galegoa), baina euskarari dagokionez behintzat beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera emango duten sistema automatikoak garatzeko helburuaren barruan sartzen da.

4.1. Euskara Interneten

4.1.1. *Euskarazko edukiak*

Euskara oraindik Interneteko bilatzaile handietan automatikoki ezagutzen ez den hizkuntza denez, ez dugu sarean dauden euskarazko web guneei buruz nahikoa onargarri zaigun daturik. 2003an egin zen azterlan batean (Mas i Hernández 2003) euskara 40. zegoen munduan orrialdeen kopuruari dagokionez. Geroagoko azterlanek 34. tokoa aipatzen zuten. Edozelan ere, iturri batzuek eta besteek erabiltzen dituzten gutxi gorabeherako kopuruek argi eta garbi erakusten dute euskararen eta Interneten presentean dauden hizkuntzen artean dagoen tarte ikaragarria. Ez dugu aiantzi behar ingeleza gaur egun sarean erabat nagusia den arren, nagusitasuna aldatuz doala beste hizkuntza batzuk gero eta gehiago hedatzen ari direlako Interneten; beraz, ikusi beharko da zer erabilera doazen finkatuz hedabide berri horretan, bertan zein hizkuntza erabiliko diren eta, bereziki, hizkuntza komunitate bakoitzeko kideek zer hizkuntza erabiliko duten gutxieneko proiektzioa egin ahal izateko.

4.1.2. *Internauta euskaldunak*

Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren estatistiken arabera (normalean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak dituzte hizpide, eta EAEn bizi dira 16 urtetik gorako euskal hiztunen % 84), gorako joera erakusten dute euskarazko orrialdeetarako sarrerek, 2004an % 15 eta 2008an % 24 izan ziren eta. Horrela, esan dezakegu euskarazko orrialdeetara sartzen diren pertsonen portzentajea euskal hiztunak diren internauten portzentajera hurbilduz doala. Bestalde, azken urteetako hazkunde nabarmen hori ulertzeko, ziurrenik arestian aipatu dugun joera, Interneteko euskarazko eskaintza gehitzean islatzen dena, eta sarera erantsiz doazen belaunaldien artean euskara dakien jende gehiago dagoela kontuan hartu behar ditugu. Portzentaje horiei adituz, eta datuok Euskal Herriaren multzora estrapolatuz, beste hizkuntza batzuekin batera euskaraz ere nabigatzen duten 200.000 pertsona inguru izango lirateke. Ingeleseztako orrialdeetara ere sartzen diren pertsonen kopurua baino apur bat handiagoa.

4.1.3. *Webguneak: tipologia, hizkuntza erabilerak, eragileak eta gunerik bisitatuenak*

Euskarazko web gune ugari daude, jakina. Hizkuntzen erabilerei dagokienez, elebidunak edo eleaniztunak —euskara beste aukera batzuen artean dutenak— eta euskara hutsekoak bereiziko ditugu. Lehenengoen artean era-

kunde eta organismo publikoen mendekoak dira nagusi. Euskara hutsean eta nagusiki euskaraz argitaratzen direnen artean irabazi asmorik gabeko erakundeak dira gehienak. Bi esparru horiek, erakundeak eta gizarte ekimeneko organismoak, dira euskarazko web guneetara ekarpenik handienak egiten dituztenak; enpresa pribatu edo profesionalenak ematen diete gutxien.

Euskarazko web gunerik bisitatuenen artean hedabideen on-line edizioak daude. Adibidez, *berria.info*, internauta gehien hartzen dituen euskarazko web gunea da, egunero 13.000 bisitari baino gehiagorekin. Erreferentziazko beste web gune bat *eitb.com*-en euskarazko bertsioa da, euskal irratitelebistarena, aurrekoaren audientziaren erdiarekin. Atzetik lehen aipatutako *Elhuyar*, *Argia* eta *Hitza* argitalpenen edizio elektronikoak datoz, egunero 1.000 eta 2.000 bitarteko bisitekin.

Hedabide digitalak soilik direnen artean, *sustatu.com* aipatuko dugu, teknologia, kultura eta ekonomiari buruzko albisteekin, euskal hiztunak diren profesionaleri zuzenduta, egunero 1.000 erabiltzaile baino gehiago sartzen zaizkiona. Kontuan hartzeko beste fenomeno bat tokiko atari batzuen da (adibidez *eibar.org* edo *uztarria.com*), euskara sarean erabiltzailearen nola-bait aitzindari direnak.

4.1.4. Euskararen corpora sarean

XVI. mendetik XX. mendera bitarteko euskarazko literatura-ekoizpenaren zati handi bat digitalizatzek terminologia datutegi baliagarria eskaini die hizkuntzalariei eta, gainera, historian euskaraz idatzitako gehiena jarri dio eskuera jendeari. Hizkuntza txikia izatearen abantailetakoa bat, agian. Horrela, gaur egun *Klasikoen Gordailua* bezalako proiektuak daude, tarte horretako hainbat generotako 300 obra baino gehiago on-line eskaintzen dituenak, eta masa idatzi horretan guztian terminoak bilatzeko aukera ematen duena. Edo *Euskararen Corpora*, XX. mende osoko ekoizpenaren oso lagin oparoarekin gauza bera egiten duena.

4.1.5. Blogosfera eta komunitate birtualak (.eus)

Azken urteotan nabarmen hazi da euskarazko blogen fenomenoak. Gaur egun *aurki.com* atariak 500 blog inguru ditu euskaraz, askotariko informazio, bizipen eta eztabaidekin. Era berean, euskarazko blogosfera horrekin loturik, euskaraz dauden webguneentzako *.eus* domeinuaren aldeko ekimena sortu da, katalanez dauden webguneentzako *.cat* domeinuaren ereduari jarraituz, eta uneotan lehenengo urratsak egiten ari da (Puntueus).

4.2. Softwarea

Euskarazko programa informatiko aurrendarietako bat *Xuxen* zuzentzaile ortografikoa izan zen, 80. hamarkadaren amaieran Euskal Herriko Unibertsia-

tateko ikerlari talde baten ekimenez sortuta. Zuzentzailea mugarria izan zen euskara informazioaren teknologia berrien munduan sartu zuen neurrian; zeregina nekeza inguruan nagusi diren hizkuntzen gramatika egiturarekin zerkusirik ez duen hizkuntzarentzat, hizkuntza nagusi horien inguruan garatu baita halakoak egiteko oinarritzko teknologia gehiena. Bestalde, zuzentzaile horrek euskara teknologia berrietara egokitzeko moduko hizkuntza delako irudia finkatzen lagundu ez ezik, ikaragarri lagundu zuen artean estandarizatu eta arautzeko prozesuan zegoen ortografia hedatzen ere; ez dugu ahan-tzi behar literaturako euskara batua 60. hamarkadaren amaieran sortua zela. Gaur egun, bertsio berrietuekin, euskaraz idatzitako testuetarako erreferen-tziatzko zuzentzailea izaten segitzen du *Xuxenek*.

Euskarak softwarearen esparruan duen erabilera *Softkat* katalogoa-ren bidez ikus daiteke orain; katalogo horretan euskaraz erabilgarri dau-den 369 aplikazio informatiko erregistratuta daude. Kode irekiko aplika-zioak zein jabetun softwarekoak aurkituko ditugu bertan. Bulegoetarako aplikazioak dira (37), besteak beste *Openoffice* eta *Microsoft Office*; oina-rritzko aplikazioak (31), doako zein ordaintzeko sistema eragile nagusiak hartzen dituztenak, Interneten nabigatzeko programak (70), dokumenta-ziorako (57), hizkuntzak erabiltzeko (hiztegiak, zuzentzaileak, eta abar, 50), irakaskuntzan erabiltzeko (78), entretenimendurako (33) eta bestela-koak (13). Herena produktu bertakotuak dira, hots, beste hizkuntza batean egindako aplikazioen euskaratzeak. Gainerakoak euskaraz sorturiko apli-kazioak dira.

Amaitzeko, esan dezagun, beste esparru batzuetan bezala, gizartearen ekimena erabakigarria izaten ari dela euskara hedabide berrien alorrean ere garatzeko. Motor horren indarrak kode irekietan oinarritutako aplikazioei bu-ruzko interesa areagotu du, administrazio publikoen eta enpresa pribatuen gaur eguneko joera kontserbadoreagoaren aldean, hauek —salbuespenak sal-buespen-jabetun softwarea erabiltzearen aldekoak izaten baitira. Kode ire-kiko teknologiek hizkuntza gutxituei irekitzen dizkieten ateak daude interes horren oinarrian—.

5. LIBURUAREN INDUSTRIA

Euskaraz argitaratu zen lehenengo liburua 1545ekoa da, *Linguae Vas-conum Primitiae*, Beñat Etxepare eliz gizonarena. Hainbat gaitako konta-kizunen bertso bilduma da, erlijioa zein maitasuna (azken hau gai nagusia izanik), euskal hizkuntzaren gorespenak barne. Ez litzateke liburuaren argi-talpena ulertuko urte haietan Espainiako eta Frantziako erresumen mende ez zegoen Nafarroako Erresuma izan ez balitz. Ingurumari berean, handik urte batzuetara (1571) Itun Berria euskaraz argitaratu zen, Albretoko Joana Nafa-rroako Erreginak, Joanes Leizarraga apaizari egindako mandatuz, Nafarroan protestantismoa hedatzeko. Erresuma hura Frantziako eta Espainiako koroe-

kin behin betiko lotzeak euskara idatzizko kulturara sartzeko aukerak zapuztu zituen eta, horrekin batera, argitalpen bibliografikoa ere bai.

Horrela, XVI. eta XVII. mendeetan 52 liburu baino ez ziren euskaraz argitaratu, eta gehienak erlijio gaietakoak. 1700etik 1875era arte 671 argitaratu ziren, beste gai batzuk ere gehiago azaldu arren artean lautik hiru erlijiozkoak zirelarik. Hurrengo hirurogei urteetan (1875 eta 1936 artean) 1.422eraino igo zen kopurua, eta gaiak asko ugaritu ziren, literatura ere nabarmen sartuta (% 30). Une hartan, lehenago esan bezala, Francoren diktadurak kultura berreskuratzea moteldu zuen eta liburuen produkzioan ere igarri zen. Hala ere, 1937tik 1974ra arte 1.733 liburu argitaratu ziren, erlijiozkoak % 25 baino gutxiago izanik. Azkenean, XX. mendearen azken laurdenean eta XXI. mendearen hasieran politikan eta kulturen izandako aldaketek argitalpenak nabarmen gehitzea ekarri dute, baita hizpide diren gaiak normalizatzea ere. Horrela, azken aldian (1975-2004) 27.540 liburu argitaratu dira (Jakingunea).

Euskarazko liburuen argitalpenaren oraingo egoera aztertzeko, 2007ko datuak errepasatuko ditugu. Urte horretan 2.135 liburu atera ziren eta horiekusten da azken bi urteotan tituluen kopuruari dagokionez behintzat argitalpenak gora egin duela. Euskara hezkuntza sisteman sartzearen haritik, argitaratutako liburuen herena irakaskuntzara zuzentzen dira: % 32. Garrantzian bigarren doan generoa aurrekoarekin lotuta dago, zeharka, haur eta gazte literatura, % 26rekin. Atzetik giza eta gizarte zientzietakoak datoz, % 19rekin, literaturakoak, haur eta gazteena kenduta, % 13rekin, zientzia eta teknika, % 6rekin, entretenimendua % 3rekin eta gainerakoa % 2ra ere ez da heltzen. Era berean, liburu guztien % 70 euskaraz sortuta daude, eta % 30 beste hizkuntza batzuetatik itzulitakoak dira.

Argitaletxeen industria, bestalde, atomizatuta dago, argitaletxe txiki ugariarekin. Administrazio publikoen presentzia argitaratzaile gisa oso txikia da (% 12), obrak euskaraz argitaratzen dituzten Euskal Herritik kanpoko argitaletxeen azpitik (tituluen % 21). Horrek dakar, euskaraz argitaratzeko dauden laguntza publikoak gorabehera, merkatuaren mende egotea neurri handian, 800.000 euskal hiltun baino gutxiagoko merkatu potentzialaren mende.

Titulu bakoitzaren tirada, batez beste, 2.211 zen 2004an, eta etengabe jaitziz joan da azken urteetan: 2000 urtean titulu bakoitzeko 2.900 aleko tiradak egin ziren, batez beste. Jaitziera horrek merkatura irten diren aleen kopuruaren ia laurdena galtzea ekarri du. Horrek esan nahi du argitaletxeen egoera muturrekoa dela, edizio bat errentagarria izango bada ezin baita gaur egungo kopuruetatik askoz gehiago jaitzi.

Emandako datu horietatik ondorioztatzen da euskarazko argitaletxeen ekoizpena, neurri handian, hezkuntza sisteman duen presentziaren mende dagoela. Arlo horretara zuzendutako liburuek argitalpenen multzoan duten garrantzia areagotzen da 2004an argitaratu zirenen kopuruari aditzen badiogu (% 56), eta areago sortzen duten negozio bolumenaren aldean duten garrantziari begiratzen badiogu (euskarazko liburuen salmenta guztien % 68). Horregatik eragin du halako lurrikara alor horretan duela gutxi euskal erakun-

deek ikastetxeetan liburuak berrerabiltzeko politika bultzatzeko asmoa duela iragartzeak, jarduera errentagarri gisa irautea zail izango zaiolakoan.

6. ZINEMAGINTZA

Euskal komunikazio eta kultura sistema osoan zineman izan da, agian, euskararen presentzia gorabeheratsuen. Are txarrago, euskarari zine produkzioan eta erakusketan presentzia esanguratsua bermatuko dion kudeaketa publikoko eredurik ez da existitu. Gaur egun erakundeen hainbat ekintza dago bai pelikulak bikoizteko, aretoetan estreinatu eta DVD formatuan editatuak izateko, baita euskarazko filmak ekoizteko ere, baina oso mugatuak dira biak, eta ez dute ia eraginik haurrentzako segmentutik kanpo.

6.1. Hastapenak: laurogeiko hamarkada

Euskal Telebista 1982an martxan jarri zenean pelikulak eta telebistako serieak erruz bikoiztu ziren euskarara (1.500 ordu inguru urtean, 1983/1992 hamarkadan zehar); politika hori ez zen, ordea, zinema sistemara eroan. Aitzitik, laurogeiko hamarkadan zinema aretoetan filmen euskarazko bertsio gutxi eman ziren eta bideo gutxi editatu zen euskaraz (azpitoluena ez zen saiatu, onarpen txikia duelako ikus-entzunezko itzulpen sistema horrek Espainiar eta Frantziar Estatuetan). Eusko Jaurlaritzaren zine ekoizpena laguntzeko sistema hasi berriaren babesean (1980an hasi eta 1984tik aurrera finkatu zen sistema: diru-laguntza jasoz gero administrazioari euskarara bikoiztutako kopia bat aurkeztu behar zitzaion), film apur batzuekin egin ziren euskal ikusleen erreakzioa esperimentatzeko saiotxo apalak. Alabaina, zenbait kasutan emaitzak interesgarriak izan ziren arren, adibidez, *Behiak* Julio Medemen lehenengo filmarenean, saio haiek ez zuten jarraipenik izan. Aurrerantzean, produkzioarako euskal laguntzek filmen euskarazko kopia bat egitera behartzen segitu zuten, baina kopia hura administrazioako tramitea betetzeko soilik egiten zen, inolako oihartzun publikorik gabe.

Bideoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak euskarazko bideoak editatzea sustatzeko politika ezarri zuen 1987an, baina oso mugatua; horrela, 1990an 41 titulu editatu ziren, baina zaila da haien artean film arrakastatsu edo komertzialik aurkitzea, ez eta haurrentzat zuzendutakoetan ere.

6.2. Ekoizpena

Euskal zinema hamarkada honetan hasi zen garatzen, ekoizle berrientzat mesedegarria zen inguramenduan. Izan ere, Espainiako Gobernuaren laguntza sistemari Eusko Jaurlaritza sortu berriak 1980an ematen hasi eta 1984tik

aurrera sendotu zituen diru laguntzen mesede erantsia gehitu baitzion. Horiei *ETB*ren finantzazko ekarpenak gehitzen zitzaizkien, *Euskal Telebistak* Ekoizleen Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Proiektuaren gaineko diru-laguntzaetan oinarritutako finantza sistema hirukoitz horrek ikaragarri erraztu zuten zinema ekoizpenerako behar diren bitartekoak eskuratzea eta Euskadin zinemagileen belaunaldi berria sortu eta garatu zen; euretako askok, gainera, Espainiar Estatuan proiektzio publiko ona lortu zuen.

Alabaina, euskarak, euskal zinemaren nortasunaren definizioaren edo haren gizarte zereginaren inguruko eztabaidetan beti presente egon zen arren (sarritan Euskal Herrian zineak hizkuntza normalizatzen lagundu behar duela aipatuko da), errealitatean, pelikuletan, oso bazterreko lekua izan zuen. Horren haritik, pelikula bakarra ekoiztu zen euskara hutsean hamarkada hartan: *Kalabaza Tripontzia*, haurrei zuzendutako marrazki biziduneko film luzea. Gainontzeko pelikula gehienetan, euskara entzuten bazen, elkarrizketa gutxi batzuetan soilik izaten zen. Anjel Lertxundiren *Kareletik* filma izan zen basamortu horretan salbuespen bakarrenetakoa.

Eredu horretatik aparte, aipatzekoa da ere Eusko Jaurlaritzak eta *ETB*k bere gain hartutako proiektua, garaiko euskal literaturako obra ezagunetatik egokituta telebistarako hainbat film egiteko (60 minutukoak). Hiru egin ziren, *Ehun Metro*, *Zergatik Panpox* eta *Hamaseigarrenean aidanez*, baina hortxe amaitu zen egitasmoa eta, gainera, arrakala handia sortu zen ekoizpenaren sektorearen eta Administrazioaren artean. Izan ere Administrazioa zuzenean inplikatzen baitzen ekoizpenean eta hori ez zuten ondo ikusi sektore profesionalen.

6.3. Laurogeita hamarreko hamarkada

Hamarkada horrek berritasun gutxi ekarri zion euskararen egoerari zinemaren aurreko hamarkadaren aldean. Izan ziren saio bakanen batzuk, adibidez, Arantza Lazkanoren *Urte Ilunak* edo Carlos Zabala eta Eneko Olasagastiren *Maité*, euskarari leku esanguratsua eman nahi izan ziotenak, baina euskara hutsean, marrazki bizidunen hiru pelikula soilik ekoiztu eta estreinatu ziren.

Ekoizpena sustatzeko sisteman izan ziren aldaketak ez ziren euskararen mesederako izan. Espainiar Estatuko diru-laguntza sistema eredu automatiko batera igaro zen eta Eusko Jaurlaritzak berriz, ekarpenak nabarmen murriztu zituen; horrez gain, *ETB* ere euskal zinemagintzatik urrundu zen, Mugarik gabeko Telebistari buruzko Europako Zuzentarauaren transposizioak aurrekontuaren % 5 Europako ikus-entzunezkoak ekoizti eta eskubideak erostera bideratu beharrari muzin eginda. Ondorioz, zinemagintzari loturiko arrisku ekonomikoak nabarmen gehitu ziren eta ekoizpeneko euskal enpresen jarduna izugarri murriztu zen. Bestalde, proiektziorik handieneko ekoizleek, hala nola, Julio Medem, Alex de la Iglesia, Imanol Uribe... Euskaditik kanpo garatu zuten euren karrera.

Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak DVDtan editatzeari eta euskarara bikoiztutako pelikulak zinema aretoetan estreinatzeari zegokion politika handiguratsuagoa garatu zuen hamarkadaren erditik aurrera, horretara xedatutako diru laguntzen zuzkidura ondo gehituz. Horrek ez zuen eragin handirik izan hedapen komertzialeko aretoen merkatuko joera nagusiak aldatzeko, baina ondo etorri zen batez ere ikastegietara zuzendutako hasiberrien zirkuitua elikatzeke eta etxerako, bereziki haurrentzat, bikoiztutako pelikulen katalogoa osatuz joateko ere. Katalogo horren barruan, ordea, titulu komertzial nagusien hutsunea nabari da.

6.4. Gaur egun

Gaur eguneko egoera *ETB*ren politika aldaketak eta aurreko hamarkadako zinemagintza babesteko eredu publikoen hainbat alderdi zuzentzeak markatuta dago. Ondorioz euskal zinemagintzak eta, horren baitan, euskaraz ekoiztutakoak garapen handiagoa izan du. Erakusketari dagokionean, haurrei zuzendutako euskarazko zinema komertzialaren merkatuak ere nolabaiteko garapena izan du, bereziki Gabonak bezalako sasoietan.

Euskarak zinemagintzan duen lekuak hobera egin badu, batez ere *ETB*ren politika aldatu delako izan da. *ETB*k aurrekontuaren % 5 Europako ikus-entzunezkoak ekoitzi eta haien eskubideak erosteko agindua sistematikoki urratu badu ere, azken hamarkada honetan, ordea, hiru akordio sinatu ditu Euskal Herriko ikus-entzunezkoen ekoizleekin (lehenengoa 2000tik 2002ra egon zen indarrean, bigarrena 2005-2007 artean eta oraingoa, 2008an sinatua, 2011ra arte luzatuko da), eta akordio horiei esker finantzazko oinarri sendoagoa izatea ahalbidetu dio euskal ekoizpenari. Hartara, 2005ean sinatutako akordioak *ETB*k urtean gutxienez euskal ekoizleek egindako fikziozko zazpi filmetan eta zazpi dokumentaletan parte hartuko zuela zioen; gainera, eta hau da euskararentzat esanguratsuen, urtero gutxienez fikziozko pelikula bat euskaraz ekoizten lagundu eta sustatuko zuela hitzematen zuen. Orain indarrean dagoen akordioak handitu egin ditu konpromisoak: urtero hamaika pelikula eta hamaika dokumental laguntzeko betebeharra zehazten baitu, bai eta gutxienez euskarazko fikziozko bi pelikula sustatzeko ere.

Espainiako Gobernuak, bere aldetik, nabarmen gehitu ditu diru-laguntzak, eta diru-laguntza automatikoa lortzeko txartel salmentatik atera behar den gutxienerako diru kopurua ere malgutu du euskaraz egindako filmentzat (120.000 € —horietatik 30.000 jatorrizko bertsioan— gaztelaniaz egindako pelikula komertzialei eskatzen eskatze zaizkien 330.000 euroen aldean). Era beran, 2008an Zinemagintza Babesteko Funtsa handitu du, Autonomia Erkidegoetako hizkuntzetan egindako pelikulak promozionatzeko partidarekin; partida hori Autonomia Erkidegoen esku utzi da, eta erkidego bakoitzak kudeatu du (EAEri 126.000 € egokitu zaizkio urte horretan).

Bien bitartean, Eusko Jaurilaritza euskal ekoizpena sustatzeko diru laguntzak zehazten eta fintzen joan da, aurreko hamarkadan baino jarduera esparru egonkor eta aurreikusgarriagoa eskainiz. Eskema horretan batetik lehentasunezko finantzatze lerroak daude, kosterik gabeak euskal ekoizleentzat, eta, bestetik, itzuli behar ez diren laguntzak, 1.720.000 eurokoak 2008an, bi kategoriatan banatuta, egitasmoak garatzeko laguntzak eta ekoizteko laguntzak (fikziozko film luzeak, animazioko film luzeak, sortzezko dokumentalak eta film laburrak). Euskarazko ekoizpenari dagokionez, handitu egin da alderdi honen pisu egitasmoak balioesteko irizpideetan eta euskarazko proiektuek jaso litzaketen gehienezko kopuruetan —handiagoak, beraz—.

Faktore horiek batuta euskal zinemagintzak nabarmen egin du hobera azken urteotan eta euskarak ere orain arte ezagutu gabeko presentzia lortu du filmetan. Egia da euskaraz ekoizten diren pelikularik gehienak haurrei zuzendutako marrazki bizidunenak direla oraindik ere (14 bat 2000tik), eta oso banaketa mugatua dutela zinema aretoetan, baina egia ere bada helduen merkatura begira euskaraz egindako hiru pelikula ekoiztu eta arrakastaz estreinatu direla: *Aupa Etxebeste* (70.000 ikusle), *Kutsidazu Bidea, Isabel* (40.000 ikusle baino gehiago) eta *Eutsi!*. 2008an izugarri gehitu da euskarazko ekoizpena fikziozko hainbat film luzerekin helduentzat (*Sukalde kontuak, Axun eta Maite...*) zein haurrentzat (*Munduari bira 80 egunetan... doan, Zigortzaileak...*). Aipagarria da, halaber, ETBk musikazko TB-moviea ere egin duela, *Goazen!*, *High School Musical*-en arrakastaren ildotik.

Erakusketari dagokionez, euskarara bikoiztutako pelikulak zinemetara banatzeko laguntzen aurrekontu zuzkidura eta DVDko edizioei euskarazko bertsioa eranstea ere asko hazi dira hamarkada honetan. Urtero 10-15 pelikula estreinatu dira urtean zineman, eta 8-10 DVD editatu dira; horretarako hamarkada hasierako 450.000 euroetatik 2008ko 698.000 euroetara bitartean xedatu dira urtero. Ahalegin hori ez da, ordea, zinema banaketako multinazionalak jartzen duten muga handia hausteko nahikoa, oraindik euren estreinaldiak euskarara bikoizteari uko egiten diote eta. Adibidez, *Harry Potter* edo *Eraztunen Jaunen* serieak, edo Walt Disneyren pelikulak. Horren harira, zinemako bikoiztea eta banatzea babesteko politikaren irismena oso mugatua da oraindik, eta ez du haurren atalaren eta hezkuntzaren esparruko banaketaren muga gainditzea lortu. Horretan eragina izango du, agian, *ETB*ren emisioen politikaren bilakaerak, hasieran euskararako bikoiztea masiboa eta euskarazko emisioak erregularrak izan ostean, euskarazko kanalean film luzerik ia bat ere ez ematera igaro baita, eta horrela zaila da filmak euskaraz ikusi eta entzuteko ohitura sortzea.

7. ERREFERENTZIAK

ARANA, E.; AMEZAGA, J. and AZPILLAGA, P.: (2006): «The Basque Mass Media». *Mercator Media Monographs*, 2, in <http://www.aber.ac.uk/mercator/images/BasqueLangMediaterfynol.pdf>

- ARANA, E. (2004): Programaziogintza irratitelebistan. Bilbo, UEU.
- BASTERRETXEA, J.I. (1997): «Telebistak 25 urte Hego Euskal Herrian», in *Jakin*, 98 (11-20).
- BELOKI, J. (2004): «Irratia» in F. Garmendia (ed.): *Euskal Herri Enblematikoa. Prentsa, Irratia eta Telebista*, Lasarte-Oria, Ostoa (86-138).
- EUSKARAZKO KAZETARITZAREN I. KONGRESUA (2005): *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*, in <http://www.argia.com/kazetaritzakongresudokum.htm>
- GUTIÉRREZ, A. (2002): *Euskal irratigintzaren historia*. Bilbo, UEU.
- MAS I HERNÁNDEZ, J. (2003): «La salut del català a Internet». *Softcatalà*, in <http://www.softcatala.org/articles/article26.htm>
- TNS (2006, 2007 y 2008): *Anuario de Audiencias de Televisión*. TNS, Madrid.
- AEK (Coordinator of Adult Literacy in Euskara): www.aek.org
- Basqueliterature: www.basqueliterature.com
- Berria (Basque language newspaper): www.berria.info
- CIES: www.ciessl.com
- EAS (System of Linguistic Indicators of the Basque Country): http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak/gaiak.apl?hizk=i
- EDB (Database on Euskara): www.soziolinguistika.org/edb
- EITB (Basque Public Broadcasting): www.eitb.com and www.eitb24.com
- Euskararen Jarraipena (Sociolinguistic Survey of the Basque Country): www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=99&idioma=i&opt=0
- Euskararen Corputa (Corpus of Basque): <http://www.euskaracorpora.net>
- EUSTAT (Basque Statistics Office): www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=98&idioma=i&opt=0
- Jakingunea: <http://www.jakingunea.com/>
- INE (Spanish National Statistics Institute): www.ine.es
- Klasikoen Gordailua (Treasure of Classics): <http://klasikoak.armiarma.com>
- Kontseilua (Council of Social Organizations in favour of Basque): www.kontseilua.org
- Opentrad (Open Source Machine Translation for The Languages of Spain): <http://www.opentrad.org/demo/?language=en>
- Puntueus: www.puntueus.org
- Softkat (Catalogue of Software in Basque): <http://softkat.ueu.org/index.php>
- TNS: www.sofresam.com